





EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERA KO II. ESKUALDE PLANA

UROLA GARAIA 2016-2019



GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUN ARLOA
ÁREA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

UROLA GARAIA



Eusko Jaurlaritzako erkunde autonomikoa
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



I. zatia	BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA	4. or.
	1. Aurkezpena	5. or.
	2. Arau testuingurua	7. or.
	3. Berdintasun politiken ibilbidea Urola Garaia Mankomunitatean	8. or.
	4. BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA	9. or.
	5. Berdintasunerako II. Planaren egitura	11. or.
II. zatia	ABIAPUNTUA: DIAGNOSTIKORAKO ELEMENTUAK	13. or.
	1. Gobernantza	14. or.
	2. Ahalduntzea eta partaidetza	21. or.
	3. Erantzunkidetasunezko zaintzak	24. or.
	4. Indarkeria matxista	27. or.
II. zatia	ESKU-HARTZE ARDATZAK	29. or.
	1. ARDATZA Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantza	30. or.
	1. programa: Genero ikuspegia transbertsalizatu nahi izatea eta ahal izatea	31. or.
	2. programa: Genero ikuspegia transbertsalizatzen eta hori neurtzen jakitea	36. or.
	2. ARDATZA Emakumeen partaidetza soziopolitikorako ahalduntzea	41. or.
	3. programa: Emakumeen autonomia ekonomikorantz	42. or.
	4. programa: Bizileku propioa: Emakumeen Etxea	47. or.



3. ARDATZA Erantzunkidetasunezko antolaketa soziala	52. or.
5. programa: Familia-esparruko zaintzak	53. or.
6. programa: Esparru profesionaleko zaintzak	58. or.
4. ARDATZA Indarkeria matxistarik gabeko bizitza	63. or.
7. programa: Prebentziorako: beldur barik!	64. or.
8. programa: Detekzio eta arretarako: Eskualdeko Koordinazio Protokoloa	69. or.
 IV. zatia. BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN KUDEAKETA EREDUA	74. or.
1. II. Planaren garapen eta jarraipenerako sistema	75. or.
2. II. Plana ebaluatzeko sistema	78. or.
3. II. Planerako bitarteko ekonomikoak	80. or.
 V. zatia. ERANSKINAK	
Jarraipen fitxarako eredua	87. or.



I. zatia:

Emakumeen eta Gizonen
Berdintasunerako II.
Eskualde Planaren
aurkezpen eta testuingurua



2008an Urola Garaia eskualdeko udalek -Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragak- erabaki zuten indarrak batzea eta oinarriak finkatzea, berdintasun politikak Urola Garaia Mankomunitatek bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Eskualde Planaren indarraldia amaitua da jada, eta orain berriro egin behar da udalek Mankomunitateari emandako agindua, honakoa baita: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoa betez, Mankomunitatearen lurralde esparruan bere gain hartzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, programatu eta ebaluatzen zein horietan aholkularitza emateko ardura. Eta, horretarako, orain II. Plan hau onartu behar da, bai udal bakoitzeko osoko bilkuran bai Mankomunitatearen Batzar Orokorrean, hain zuzen ere Urola Garaia Mankomunitatearen estatutuaren 16 i) artikulua dioenaren ildotik. Beraz, Berdintasunerako II. Plan honen helburuetako bat berdintasun politikak bultzatzeko eskualde mailako akordio eta konpromisoari elkarrekin jarraipena ematea da. Hala ere, kontu handiagoz egiten den analisi juridikotik eta horrekin baterako gogoetatik baliteke ondorioztatzea beste akordio batzuk hartu edo hitzarmen batzuk egin beharra, are estatutuen aldaketaren batera jo beharra ere.

Aldi berean, genero transbertsalitatearen estrategia garatu nahi du, aliantzak eta laneko esparru estrategikoak identifikatuta, emakumeen partaidetza soziopolitikorako prozesu eta ahalduetako prozesu jada abiatuak sendotzearekin batera, oraindik ditugun erronkak eta era guztietako emakumeen behar eta interesei eskaini beharreko arreta identifikatuta.

Azkenean, prestakuntzarako abiapuntua emakumeen bizitza-prekarietateko premiei erantzuna eman beharra izan da, duten autonomia hobetzea ahalbidetuko dieten bitartekoetarako aukera emanez erantzutea alegia

Identifikatu diren laneko lehentasunak, helburu eta neurri espezifiko bihurtu baitira, Mankomunitatearen berdintasunerako politikek egin ibilbidearen analistik, Urola Garaiko emakume eta gizonen egoeraren analistik eta Berdintasunerako II. Eskualde Planaren inplementazioari buruzko txostenetik ondorioztatu dira.

Ondoren aurkezten dugun Berdintasunerako II. Planaren dokumentua ezingo zen prestatu emakumeen partaidetza aktiborik gabe, duela urte batzuetatik hona beren bizipenak partekatzen ari baitira, eta bere eskaerak planteatzen, ahalduzaren arloan zein indarkeria matxistaren kontrako borrokarenean -nabarmenenak aipatzearen- finkatzen joan diren programa estrategikoetatik. Ezin izango zen egin, halaber, udaletako eta Uggasako teknikariek beren erantzukizun publikoetatik zein ezagutza eta esperientziatik partaidetza aktiborik izan ez balute, ezta udaletako eta Urola Garaia Mankomunitateko arduradun publikoek berdintasuneko politikak batera bultzatzeko konpromisorik hartu ez balute ere.


Eta emakume eta gizon horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, erantzunkidetasunaren bidetik jotzeko eskaini dizkiguten denbora, energia eta proposamenengatik, horiei guztiei esker Urola Garaiko gizartea, oro har, eta emakumeak bereziki, bizimodu hobe baterako bidean abiatuko baitira. Oso bereziki, eskerrak eman nahi dizkiegu emakumeei, antolatuei zein antolatu gabeei, bere bizitzan denbora atera baitute, borondate hutsez, beren ahotsek, esperientziek eta bizitzek, azken urteotan zehar bereganatu dituzten partaidetzarako espazioetatik, berdintasunerako politika publikoak gida eta orienta ditzaten.



I. 2. ARAU ESPARRUA

7


Lokaletik globalera:





1. 3. BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEA

Urola Garaiko berdintasun politiken bideko mugarri batzuk



Jarraitu den laneko metodologiak Ikerkuntza-Ekintza-Partaidetza (IEP) printzipioak segitu ditu. Horren helburuak honakoak izan dira:

- ✓ II. Plana prestatzeko prozesua ez izatea helburua, baizik eta bitartekoa, plana garatzea ahalbidetuko duten baldintzak sortzearen plana gauatzeko planteatutako epean bertan.
- ✓ Gogoeta eta eztabaida kolektiboaren bidez definitu ahal izatea planaren prestakuntza gidatu behar duten irizpideak, eskualdean erantzun behar zaien lehentasunak eta horiei ekiteko behar diren konpromiso politikoak eta egiturazko baldintzak (bitarteko ekonomikoak eta pertsonal aldetikoak, eta transbertsalitatearen estrategiaren garapenak eskatzen duen erantzunkidetasuna ulertzea).

Printzipio horietatik abiatuz, metodologia mistoa erabili da informazio bilketari eta horren analisiari dagokionez. Hau da, bigarren mailako informazioaren berrikuspena zenbait dinamika eta tresnarekin konbinatu da, esate baterako lantegiko saioak, elkarriketa erdi-egituratuak, eztabaida taldeak edo kontraste talde fokalak garatuz partaidetzarako espazio politiko, tekniko eta sozialetan.

II. Plan hau prestatzeko erabili diren bigarren mailako iturri nagusiei dagokienez, honakoak azpimarra daitezke:

- ❑ Udal mailako bigarren mailako iturriak: *Urola Garaia Udal Elkartearen Genero Diagnostikoa* 2014an prestatua, eta *Inplementazio Memoria (2011-2014)* Urola Garaiko Udal Elkartearen berdintasunerako politikaren ingurukoa, besteak beste.
- ❑ Berdintasun politiketarako plangintza dokumentuen berrikuspena: kasu honetan, erreferentzia esparrua Gipuzkoako Lurraldeko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020) zein EAEko Berdintasunerako VI. Plana izan dira.



I. 4. II. ESKUALDE PLANA PRESTATZEKO PROZESUA

Dinamika eta tresna kualitatiboenei dagokienez, saio hauek izan dira:

1. FASEA: *2014an Urola Garaiko eskualdean egindako generoari buruzko diagnostikoko datu nagusiak itzultzea:*

- ✓ Lansaioan eskualdeko Berdintasuneko Batzorde politiko-teknikoko pertsonak parte hartu zuten parte. Guztira 20 pertsonak hartu dute parte (11 emakume eta 11 gizon izan dira).

2. ETA 3. FASEA: *Beharrak eta ikasteko espazioak detektatzea eta II. Planerako proposamenak definitzea-kontrastatzea:*

- ✓ Prozesua dinamizatzeko lantaldearen 8 bilera; lantaldean lau pertsona dira, berdintasuneko 2 teknikari eta kontratatutako aholkularitzako lantaldeko 2 teknikari.
- ✓ 8 lansaio dagoeneko badiren edo prozesu honetatik abiatuta sortutako eskualdeko batzorde teknikoetan; horien artean daude honakoak: gazteen artean indarkeria matxistaren prebentziorako talde teknikoa, Uggasarekiko (Toki Garapenerako Agentzia) koordinazio teknikorako espazioa, erakundearteko koordinaziorako I. Protokoloa garatzeko mahai teknikoa, eta toki eta eskualde mailako idazkarietako lan espazioa. Guztira 23 pertsonak hartu dute parte (18 emakume eta 5 gizon izan dira) eta
- ✓ informazio eta kontrasteko 2 saio egin dira eskualdeko Berdintasuneko Batzorde Politiko-Teknikoarekin (II. Plana prestatzeko prozesuaren jarraipen batzordea) eta Urola Garaiko Mankomunitatearen Batzorde Eragilearekin. Guztira 22 pertsonak hartu dute parte (11 emakume eta 11 gizon izan dira).
- ✓ 7 lansaio egin dira Urola Garaiko Ahalduntze Eskolan parte hartzen duten emakumeekin eta eskualdeko mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarte mugimenduarekin. Guztira 55 emakumek izan dute partaidetza zuzena. Azpimarratzekoa da egoera eta jarrera desberdinak zituzten emakumeen partaidetza ziurtatu dela, emakumeen behar eta interes desberdinen gaineko begirada zabaldu ahal izan genezan. Hala, emakume gazteak izan dira partaide, eta jatorri desberdineko emakumeak (latinoak, pakistandarrak, marokoarrak, etab.), etxe-langileak, zaintzaile informalak eta profesionalak, 50 urtetik gorakoak eta indarkeria matxista jasaten ari diren edo jasan duten emakumeak.

Orokorrean, guztira 104 pertsona izan dira partaide; horietatik % 85 emakumeak ziren, eta % 15 gizonak. Eta 8 entitate publikotako pertsonal politiko eta teknikoa ere izan da -Urola Garaia Udal Elkarte, Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalak, Uggasa, Osakidetza (2 osasun zentro, osasun mentaleko zentroa eta eskualdeko ospitalea) eta Ertzaintza-. Parte hartu duten toki eta eskualde mailako teknikariak Idazkaritza, Gizarte Zerbitzu, Gazteria, Kultura, Enplegu, Ekintzailatza, Enpresa eta Iraunkortasun arloen arduradunak dira.



I. zatia **BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA**

1. Aurkezpena
2. Arau testuingurua
3. Berdintasun politiken ibilbidea Mankomunitatean
4. Berdintasunerako II. Planaren prestakuntza prozesua eta egitura

II. zatia **ESKU-HARTZE ARDATZAK**

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantza
2. Emakumeen partaidetza soziopolitikorako ahalduntzea
3. Erantzunkidetasunezko antolaketa soziala
4. Indarkeria matxistarik gabeko bizitza

III. zatia **II. PLANAREN KUDEAKETA EREDUA**

1. Garapen eta jarraipen sistema
2. Ebaluazio sistema
3. Bitarteko ekonomikoak

Dokumentuak **3 atal nagusi** dauzka:

- I. Sarrerako atala, prestakuntza prozesuaren testuingurua eta erreferentzia esparrua laburtzeko;
- II. 4 esku-hartze ardatzak deskribatzen dituen atala;
- III. Kudeaketa, jarraipen eta ebaluazio atala, urteko plan operatiboetan garatu beharko diren estrategiak eta laneko prozedurak itxuratzekoa.

Esku-hartze ardatzei dagokienez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren egiturari jarraitzea aukeratu da, eta horrenbestez Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Eskualde Planarena gainditzea, hori erakundeetako politika publikoen egitura tradizionalari jarraiki egituratu baitzen. Horretarako arrazoiak honakoak izan dira:

- ✓ Lan prozesuetako enfasiak eta genero transbertsalitatearen filosofiak eskatzen dute gauzak egiteko modua aldatzea eta **esku-hartzea konpartimentuka banatzeko dagoen joera gainditzea**, gero eta lan eredu holistikoagoak sustatzearen.
- ✓ Berdintasun politikak lehentasunezko ardatz batzuen inguruan birbildu nahi izan dira, bitarteko eta ekintzen **sakabanatze handiegia gerta dadin saihesteko**.
- ✓ **Plan errealista bat diseinatu da**, eta horren aurrerapena **zehatz-mehatz neurtuko da** inplikaturako arlo guztiekin, jarraipen eta ebaluazio lan garrantzitsua eraginez horrenbestez.



I. 5. II. PLANAREN EGITURA: adibide argigarri bat

12

Ardatz bakoitza 2 programatan dago egituratuta, eta beraz Berdintasunerako II. Plana osatzen dutenak **8 programa dira guztira.**

EJE 4 / PROGRAMA 8 – Para la detección y atención: el Protocolo Comarcal de coordinación

OBJ EST
8.1

- Optimizar las condiciones estructurales necesarias para una eficaz implementación del Protocolo Comarcal de Actuación y Coordinación Interinstitucional para la Mejora en la Atención a mujeres víctimas de Violencia de Género y Agresiones Sexuales.

4 **dira**

Berdintasunerak o II. Planaren esku-hartze ardatzak.

Programa bakoitzaren barnean, **bi helburu estrategikok** antolatzen dituzten laneko lehenetsunak; horiek, ondoren, helburu espezifiko eta neurri zehatz batzuen inguruan egituratzen dira (ondoren datorren eredukoaren antzeko taula batean azaltzen dira helburu eta neurri horiek).

OBJETIVOS ESPECÍFICOS	MEDIDAS	RESPONSABLE PRINCIPAL	CRONOGRAMA 2016 17 18 19
8.1.1. Mejorar la estabilidad de las estructuras de coordinación del Protocolo Comarcal.	8.1.1.1. Incorporar en el Protocolo procedimientos y requisitos que garanticen una mayor estabilidad de las personas que representan a cada entidad dentro de la Mesa Técnica.	Área Igualdad Mancomunidad	+
	8.1.1.2. Establecer procedimientos para garantizar que las nuevas incorporaciones a la Mesa Técnica del Protocolo reciban un trasvase de la información necesaria para facilitar su incorporación y el avance adecuado de las tareas acordadas.	Área Igualdad Mancomunidad	+
8.1.2. Reforzar la capacidad de incidencia de la Mesa Técnica.	8.1.2.1. Realizar una evaluación cuatrianual integral del funcionamiento del Protocolo Comarcal de actuación y coordinación introducir medidas que lo mejoren	Área Igualdad Mancomunidad	+
	8.1.2.2. Establecer procedimientos de seguimiento continuo y sistematización del trabajo realizado desde la Mesa Técnica del Protocolo.	Área Igualdad Mancomunidad	++
	8.1.2.3. Revisar el marco teórico y la terminología empleada en el Protocolo Comarcal para garantizar su coherencia con las herramientas de recogida de datos y de seguimiento de los casos.	Área Igualdad Mancomunidad	+
	8.1.2.4. Establecer procedimientos que articulen la coherencia y coordinación entre los programas comarcales de prevención de la violencia machista y las actuaciones de atención a las víctimas realizadas por las entidades que participan en la Mesa Técnica del Protocolo comarcal.	Área Igualdad Mancomunidad	+++
	8.1.2.5. Reforzar los canales de interlocución que permitan trasladar las pautas de trabajo acordadas en la Mesa Técnica a las jefaturas y las concejalías responsables de su adecuada aplicación en cada entidad firmante e impulse su liderazgo en el desarrollo del Protocolo	Entidades firmantes	+++

Neurrien taula orokorrean, bakar-bakarrik neurria bultzatzeko **"arduradun nagusia"** den erakunde aipatzen da. Hori da arduraduna, baina ez du esan nahi neurriaren inplementazioan parte hartzen duen erakunde bakarra denik. Beste erakunde partaideak neurri bakoitzaren banakako jarraipen fitxetan jasoko dira, Urteko Programa Operatiboaren (UPO) barnean.

KRONOGRAMA ETA DENBORAZKOTASUNA: 4 urteko -2016-2019- esparru plan bat diseinatzera jo da; horren inplementazioa urteko lau programa operatibotan (UPO) banatuko da, epe horretarako aukeratutako neurrien garapen posiblea zein kostua zehatzago definituta bertan.

2016

2017

2018

2019



II. zatia

Abiapuntua: diagnostikorako elementuak



Aurreko kapituluari aipatu bezala, Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plan honetan 4 esku-hartze ardatz planteatu dira. Dagoeneko azaldutako arrazoiekin batera, horiek zerikusia baitute ekin nahi zaion lan transbertsalaren ikuspegi estrategiko batekin, hemen aipatu nahi genituzke 2014ko udazkenean egindako txostenetako batzuetako, esaterako "Urola Garaiko genero diagnosia" eta "Urola Garaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Eskualde Planaren -2011-2014- inplementazio Memoria" deitutako elementu batzuk, II. Plan honen prestakuntza-prozesuan jasotako gogoetetako elementu batzuekin batera (metodologia atala ikusi). Izan ere horiek lagundu egingo digute, bai **nondik abiatzen garen** ulertzen bai, beraz, Mankomunitatearen ekintzak planeko 4 ardatzetan adierazitako lehentasunetara bideratzea eskatzen duten beharrak zein diren ikusten. Gainera, Emakumeen eta Gizonen **Berdintasunerako I. Planarekin abiatutako ibilbidea, dokumentu honetan jarraitasuna duena bera alegia, finkatu** nahi da.

Kontua ez da hemen laburtzea aipatutako txostenetan ekindako gai guztiak, Eskualdeko Berdintasun Arloaren web orrian baitaude eskura, baizik eta aztertutako datu kuantitatibo eta kualitatiboetatik ondorioztatzen diren alderdi eta joera batzuk azpimarratzea.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 3.4 artikuluan, honakoa jasotzen du: "Euskal herri-aginteei genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten". Ildo horretatik, argi eta garbi uzten du ezen genero ikuspegia jasotzea dela "emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea."

Hain zuzen ere, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak jasotzen duen moduan, kontua da genero ikuspegia administrazio jardueran sartzeak laguntzea **emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza hobetzen**, botere publikoek berdintasunarekin duten konpromisoa sendotzearekin batera, esku-hartze publiko eraginkor, efiziente eta ekitatiboago baten bidean. Horretarako, EAEko VI. Planak erreferentzia-esparru bat ezartzen du, eta foru zein toki mailako administrazioek kontuan hartu behar dute hori, "eta, horretan oinarriturik, esku-hartzeko estrategiak eta jarduerak zehaztu beharko dituzte." EAEko VI. Plana, 16. or.)



Ilido honetatik, zein dira, Urola Garaia Mankomunitatearen kasuan, **orain arte garatu diren eta Berdintasunerako II. Eskualde Planaren bidez finkatu eta zabalagotu nahi diren esku-hartze estrategiak?** Horiekin 4 atal egin ditzakegu:

1. Sendotasuna ematea eskualdeko berdintasun politikak bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzen ere duari.

Urola Garaian berdintasun politikak era mankomunitatearen bultzatzeko egungo eredu mankomunitatearen osatzen duten lau toki administrazioen arteko lankidetzarako borondate politikotik sortu da. Horren helburua jardura koherente eta batera antolatua garatzea da, esku-hartze eraginkorrak eta ekonomia zein pertsona aldetik bitartekoaren erabilera arrazional baten arabera ahalbidetzeko. Azken batean, kontua da ahaleginak bildu ahal izatea, Eskualdeko emakume eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean kolektiboki aurrera egiteko.

Borondate hori 2007an esplizitatu zen, Urola Garaia Udal Elkartearen eman zitzaionean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Planaren bidez berdintasun politika publikoa bultzatzeko ardura, horrela betez, era berean, 4/2005 Legearen 7. artikulua. Bide beretik, Berdintasun Arloa sortu zen, arlo horretan espezializatutako teknikari bat kontratatuta, Lege bereko 10. artikulua betez, honakoa baitio: "Foru eta toki administrazioek... beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jardura-eremuan".

Emakunderen zerbitzu juridikoek mankomunitateek berdintasun politikak zertzei dagokionez prestatu duen txostenak dioenaren arabera (2016, Mankomunitateko Berdintasun Arloak eskaturik egin, Arloaren blogean eskuragarria), indarrean dagoen lege esparrutik ondorioztatzen da ezen mankomunitateek hartzen dituzten akordioak derrigorrean betetzekoak direla erakunde horien kide diren udalentzat, hain zuzen ere kasu kasuko udaleko osoko bilkurak hartutako akordioak balira bezala. Horrenbestez, esate baterako mankomunitateak ingurumenaren arloan hartzen duen erabaki bat udal guztiek bete beharko dute, eta gauza bera emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez ere.



II. ABIAPUNTUA: Diagnostikorako elementuak

16

GOBERNANTZA

Honi dagokionez, argitu beharko litzateke ezen, berdintasun politika udal eskumen bat den moduan -eta horren kudeaketa ez dago Mankomunitatera transferituta-, Mankomunitateak politika horren kudeaketa eraman ahal izan dezan kudeaketarako esku emate hori onartu beharko dela udaletako osoko bilkuretan. Hau da, mankomunitateen erabakiak derrigorrean betetzeko izango dira, Emakunderen txosten juridikoak dioen moduan, baldin eta, aurrez, udalek onartu badute kudeaketa-lan horretarako esku ematea aipatu lehenari.

Ilido horretatik, Mankomunitatearen Idazkaritzak egindako txosten juridikoak dioenez (2016, Mankomunitateko Berdintasun Arloak eskaturik egina, Arloaren blogean eskuragarria), egungo egoerak oso euskarri juridiko ahula du, bereziki planek izaera programatiko hutsa dutelako eta, beraz, zuzenean eskubide eta obligaziorik sortzen ez dutelako. Eta ondoren adierazten du borondate politiko gutxi-asko esplizitua baldin badago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak arlo honetan udalei atxikitzen dizkien eginkizunak elkarrekin eta modu unitario eta Urola Garaiko eskualdearen lurralde esparrurako uniforme batean garatzeko, pausoak egin beharko direla, eskualde esparruan berdintasunaren gaiaren kudeaketa ikuspegi juridikotik finkatzeko.

Ikuspegi horretatik, orain arte egin den eta II. Plan honen bidez ere lortu nahi den eskualde mailako lana sakontzeak eta finkatzeak aukera eman behar digu gogoeta bat abiatzeko, hain zuzen formalizatu gabeko esparru juridikoak berdintasun politikak bultzatzeko unean eragiten dituen oztopoak gainditzearen. Horrela, II. Plana bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeko egiturak ere formalizatu ahal izango dira (esate baterako Eskualdeko Berdintasun Batzordea), eta horrela genero transbertsalitatearen estrategia bultzatzea eta garatzea ahalbidetu.

Eskualde mailan berdintasun politiken ainguraketa instituzionala sendotzea bilatzearekin batera, II. Plana blaitzen duen transbertsalitate ereduak bermatzen du lau udalek, erakunde gisa, oso partaidetza aktiboa izatea adosten diren neurrien programazioan zein horien inplementazio eta ebaluazioan. Helburu komunak bilatzeak eta horiek erdiesteko elkarrekin lan egitea erabakitzeak ez dakar proposamen horiek ez egokitzea udalerri bakoitzaren ezaugarrien, esperientziaren eta jada egin bidearen arabera. Zeharo kontrakoa da kontua, bakar-bakarrik ikuspegi horretatik egin baitaiteke.

2. Berdintasun politikak bultzatzeko egitura kolektiboak sendotzea eta, hala badagokio, sortzea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, argi eta garbi jasotzen ditu bere 7. artikuluan toki mailan berdintasun politikak bultzatzeko aginduari darizkion eginkizun ugariak.

7. artikulua.- Tokiko administrazioaren eginkizunak

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:
 - a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
 - b) Toki eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
 - c) Toki eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
 - d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki erakundeon eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.
 - e) Toki eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
 - f) Toki eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio jarduerak egitea.
 - g) Toki araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera.
 - h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarritzko gizarte eskubideetarako sarbidea bermatzera zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
 - i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
 - j) Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
 - k) Erakunde publiko zein pribatuarekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
 - l) Toki eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
 - m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.

Berdintasuneko II. Eskualde Planean definitutako ekintzen garapena gidatzen duen estrategiak ikuspegi dual bat jorratzen du: Ekintza Positiboa eta Genero transbertsalitatea (Mainstreamina ere deitua). Aipatu lehena pertsonen herritartasunari dagozkion eskubideak berdintasun baldintzetan disfrutatzea oztopatzen duten trabak kentzera zuzenduta dago. Neurri zehatzak dira, denbora baterako, eta praktikan emakumeek bizitzako zenbait arlotan oraindik ere jasaten dituzten desabantaila egoerak konpentsatzeko aplikatzen dira. Hain zuzen ere emakumeen eta gizonen artean desberdintasun egoerak mantentzeak eraman gaitu bigarren estrategia jorratzera, hau da, genero ikuspegiaren transbertsalizaziora jotzera; horren helburua desberdintasun hori birsortzen duten egiturazko hesiak epe ertain eta luzean desagerraraztea da.

Eskualde mailan berdintasun politika transbertsala egituratzeko erantzunkidetasun maila areagotzen jarraitu behar da, bai mankomunitatearen eta beraren mendeko -Uggasa esaterako- erakundeen eta kide dituen udalen artean, bai Eskualdeko Berdintasun Arloaren eta udal bakoitzeko eta Uggasako arlo teknikoen artean. Gauzak argiago azaltzearren, Eskualdeko Berdintasun Organoaren eginkizunak eta II. Planeko neurriak inplementatzeko ardura duten udal arloen erantzukizunak kudeaketa ereduari eskainitako IV. kapituluan jaso ditugu.

Erantzunkidetasunezko ikuspegi horretatik, II. Planak planteatzen du eskualdeko berdintasun politika bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeko beharrezko egitura kolektiboak atzera pentsatzea. Gauza desberdinak beharko dira, kasuen arabera:

- Berdintasun politikaren kudeaketa hobetzea (II. Planaren Programazio eta Jarraipeneko Azpibatzerde Teknikoaren bidez);
- Dagoeneko badiren lantaldeak finkatzea (esaterako, indarkeriaren arloko I. Koordinazio Protokoloaren jarraipenerako mahai teknikoak);
- Informazio espazio puntualak eskualdeko lantalde tekniko egonkor bihurtzea, planeko neurriak bultzatzera begira (esaterako, indarkeria matxistaren prebentziorako taldearen kasuan);
- Lantalde berriak sortzea II. Planaren garapenerako esparru zehatzei ekiteko (esate baterako, berdintasun klausulak sartzeko edo zaintza familiarrari buruzko neurriak inplementatzeko, Uggasarekin aritzeko, etab.).

3. Transbertsalitatearen gainera ikaskuntza instituzionala sustatzea: prestakuntza, II. planeko neurriak garatzeko laguntza eta udalerrii eskainitako banakako aholkularitza

I. Planaren inplementazioan zehar, ekintza positiboko neurrien garapenean jarri zen enfasia; Eskualdeko Berdintasun Arloak zeukan neurri horiek, ia-ia guztiak, zuzenean gauzatzeko erantzukizuna. Proiektu estrategikoei, esaterako Ahalduztze Eskola sortzeak eta indarkeria matxistaren prebentzioarako Beldur Barik! programak, eta eskualdeko emakume zaintzaileekin edo emakume migratzaileekin egindako partaidetza azterketek, ekintza-bide jada finkatu batzuk ireki dituzte, 4 herrietako biztanleriaren zenbait sektoreekin jardun ahal izateko. Eskualde Arloaren aldetik ahaletan handia eskatu dute, eta Arloa hiru Lurraldeetako berdintasuneko beste erakunde batzuekin ere lankidetzan aritu eta bere praktika partekatu du; horri esker, Urola Garaia Mankomunitatea leku nabarmenean kokatu da, EAEko tokiko berdintasun politiken garapenari dagokionez.

Biztanleriarekiko esku-hartzearen lehentasunak itxuratzeko lehen fase honetan, udaletako, Mankomunitateko eta Uggasako lan arloetan genero ikuspegia transbertsalizatzeko estrategia modu puntualago batean garatu da, bai prozesu zehatzei lotuta bai eskualdeko erakundeek (udalek, Uggasak, Mankomunitateak eta abarrek) egindako eskaerei erantzuteko. Hona hemen adibide batzuk:

- Berdintasunaren arloko oinarritzko prestakuntza lan bat egin zen, 7 orduko iraupeneko bat, 2010eko urtean, Mankomunitateko, udaletako eta Uggasako teknikari eta politikariei zuzenduta.
- Gogoeta-ekintza prozesuak bultzatu dira, lantaldeak propio sortuta gainera udal arloetako teknikariekin, I. Planeko zenbait esparru estrategikotan; horien artean daude, esaterako, Urola Garaian hirigintza genero ikuspegiz berrikusteko proiektua (2013), Urola Garaiko eskualdean mendekotasuna duten pertsonen zaintzari buruzko diagnostikoa (2012), edota Urola Garaian emakumeen kontrako indarkeriaren egoerari buruzkoa (2012).
- Bestetik, eskatu duten eskualdeko agenteei banakako aholkularitza eskaini zaie zenbait arlotan (diru laguntza publikoetan berdintasun klausulak jasotzeki buruzkoa Urretxu eta Legazpiko udalen kasuan; hizkuntzaren erabilera ez sexistari buruzko gomendioak Mankomunitate, Uggasa eta eskualdeko udal entzate; Urretxu eta Zumarragako udalen Xera Sarirako oinarriak prestatzeko eta saritua aukeratzeko prozesuan laguntza, etab.).

lido horretatik, orain Berdintasunerako II. Eskualde Planak lortu nahi duena transbertsalitaterako ikaskuntza instituzionalak garatzea da, prestakuntza-estrategia kolektibo antolatu batetik; horrek honakoak eskatuko ditu:

- Eskualdeko berdintasun politiken garapen eredua definitzea;
- Ikasteko eta elkarrekin trukatzeko espazioak diseinatzea, pertsonal politikoaren egin nahia eta egiten jakitea finkatzeko, berdintasun politikan aitzindari izan daitezen eta politika horiek udal eta eskualde mailako agendetan kokatzeko;
- Beste arlo batzuei eragiten dieten edo beste arlo batzuen erantzukizuna diren II. Planeko neurriak garatzeko laguntza teknikorako sistema bat diseinatzea;
- Eta, azkenean, eskatzen duten eskualdeko entitateei aholkularitza eman ahal izatea, halaber, berdintasun gaietan, II. Planean jasotako neurrien garapenean inplikatura ez egonda ere.

4. Kontuak ematea: II. Planaren programazio, jarraipen eta ebaluazioa, gardentasunez eta komunikazio eraginkor batetik

I. Planean zehar, eta plan horren implementazio fasean, kudeaketa-prozedura batzuk ezarri ahal izan dira, eta esku-hartze esparru jakin batzuei lotutako lan prozesuen ebaluazioak garatu ahal izan dira; esparruak honakoak izan dira:

- Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen biktima diren emakumeei zuzendutako Arreta Hobetzeko Jarduerarako eta Erakundearteko Koordinaziorako Eskualdeko Protokoloa;
- Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko Beldur Barik programa, eta
- Ahalduntze Eskola -honen sistematizazio proiektua sarean ari da gauzatzen, Arrasate, Azpeiti, Eibar eta Hernaniko udalekin batera-.

Proiektu horietarako dagoeneko definitu diren adierazleek elikatuko dute II. Planaren ebaluazio orokorrerako sistema; horretara itzuliko gara Kudeaketa Ereduari buruzko IV. kapituluari, aiantzi gabe baina ezen, benetan jakin nahi badugu zer mailatan **bete den planifikatu eta aurreikusia** neurri, bitarteko eta kronogramari dagokienez, eta aldi berean aztertu neurrien garapenak zein mailatan sendotu ahal izan duen **genero transbertsalitatea** barne mailan, eta zenbateko eragina izan duen kanpo mailan, behar beste denbora eta bitarteko bideratu beharko dela horretara, gauzak egoki egin ahal izatearren.

Azkenean, II. Plan honetan ahalegina egingo da Mankomunitatetik berdintasunaren arloan egiten dena sozializatzea ahalbidetzen duen estrategia kuantitatiboki eta kualitatiboki hobetzeko; aldi berean, ahalegina egingo da udaletatik, Uggasatik eta Berdintasun Arlotik dagoeneko eskura diren hedabideen (blogen eta sare sozialen) erabilera sendotuz sentsibilizazio eta kontzientziazte lana egiteko.

Ahalduntzeari buruzko definizioek jaso ohi dute hark hiru dimentsio dauzkala:

- a) *pertsonala*, niaren zentzuaren, konfiantzaren eta gaitasun indibidualaren garapentzat;
- b) *taldearena*, horretan antzeko egoeretan dauden beste pertsona batzuekiko harremanek aukera ematen baitute negoziatzeko eta erabakietan eragiteko ahalmena, eta
- c) *kolektiboa*, dauden egitura politiko eta sozialetako partaidetza gisa.

Beste era batean esanda, ahalduntzea zaurgarritasuna murrizteko eta norbanakoaren zein kolektiboaren gaitasunak areagotzeko prozesu bat da funtsean.

Urola Garaiko eskualdearen kasuan, 2014an egindako diagnostikoak agerian jarri du ezen **kalteberatasun sozial eta ekonomikoak neurriz gain eragiten diela emakumeei**; hori argi ikus daiteke emakumeen bizi-prekarietatearekin eta krisiak izandako inpaktuarekin lotutako datu batzuen bidez, batetik, eta lan ordaindurako aukerarekin eta horrelako lanetan duten partaidetzarekin lotutakoen bidez, bestetik.

- Hala, Urola Garaiko eskualdean pobrezia eta gizarte bazterketako egoeran zegoen eta DSBE jasotzen zuen pertsona kopurua 577koa zen 2014ko abuztuan (gutxi gorabehera Urola Garaiko biztanleriaren % 2,2), hau da, aurreko urteko hilabete bereko onuradunak baino 109 gehiago ziren. Sexuen arabera, DSBEren onuradun kolektibo nagusia emakumezkoena da, eta emakumezkoak dira, halaber, aipatu igoeran sartutako pertsona gehienak. Adinen arabera, gizonen kasuan onuradunak batez ere 30 eta 49 urte bitarteko adin-tartean daude udalerri guztietan; emakumeen kasuan, berriz, 40 urtetik gorakoaren artean ikusten dira portzentaje altuenak, eta kopuru altuak dira, halaber, 65 urtetik gorakoaren artean.
- DSBEren osagarri gisakoak diren beste laguntza batzuek, esate baterako guraso bakarreko familientzako laguntzek eta etxebizitzarako laguntzek, 2014ko abuztu arte guztira 85 eta 125 pertsona izan zituzten onuradun, eta berriro ere horietako gehienak emakumezkoak izan dira (eta ia-ia emakumezkoak soilik, guraso bakarreko familien kasuan). Gizarte Larrialdietarako Laguntzei dagokienez, 33 familia hartzaileetatik 26 kasutan pertsona titullarrak emakumezkoak ziren.

Ordaindutako lanaren esparruaren ikuspegitik, desorekak ikusten segitzen dugu emakumeen eta gizonen egoeren artean, eta horiek ongi ematen dute lehenen autonomia ekonomiko txikiagoaren zergatia:

- 2014ko lehen sei hilabetean, Urola Garaian enplegu bila ari ziren pertsona guztien artean % 56,6 emakumezkoak ziren. Langabezia-tasa ere handiagoa zen emakumeen artean Urola Garaian, eta gizonen eta emakumeen arteko arrakala handitzen joan da, eta emakumezkoen langabezia-tasa gizonezkoena baino handiagoa izan da beti (2009an % 2,8 handiagoa izatetik 2014an % 3,7 handiagoa izatera igaro zen).

- Kontratazioei dagokienez, 2011 eta 2014 bitartean jaisten joan da emakumeei egindako kontratu kopurua; ondorioz, urte hauetan guztietan gizonetzoei kontratu gehiago egin zaizkie. Alde handiena 2012ko urtean ikusten da, horretan kontratuetatik % 41,3 bakarrik izan baitzen emakumeentzat. Portaera hau Gipuzkoakoaren oso bestelakoa da, azken sei urteotan emakumeei egindako kontratu kopurua gizonetzoei egina baino handiagoa izan baita beti probintzian.

Datu kuantitatiboez gain, eskualdeko Ahalduztze Eskolaren esparruan sortu diren emakume zaintzaile eta emakume migratzaileentzako ahalduztze taldeetatik jasotako informazioaren analisi kualitatiboak krisi ekonomikoaren eta jasaten duten prekaritate handiagoko egoeraren inguruan dituzten pertzepzio eta bizipenak jasotzea ahalbidetu digu:

- Krisiak eta horren inguruan esfera publikoan sortutako alarma sozialak areagotu egin dituzte jatorri immigrante biziaren kontrako diskurtso eta jarrera arrazista eta xenofoboak, eta hedabideek ere bere parte izan dute horretan.
- Krisiak eragin negatiboa izan du emakume horien ekonomiaren eta eskubide sozialak (osasuna, etxebizitza, mendeotasunerako zaintza....) disfrutatzearen gainean, eta oso eragin garrantzitsua izan du, halaber, emakume horien egoera emozionalean, batez ere bere ardurapean pertsonaren bat dutenen kasuan.
- Gero eta beharrezkoagoa da egungo sistema ekonomiko eta lan sistemaren gaineko gogoeta bat, ezen oraindik emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak mantentzen dira, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko zailtasun itzelekin batera.
- Horri gehitu behar ugalketa-lanean gizonetako emakumeekin batera konprometitzeko eta arduratzeko zailtasunak, ezen egoera horrek, azkenean, eginkizun eta arduraz gaitzartzen ditu emakume zaintzaileak, desgaste fisiko eta emozionalaren areagotze nabarmen batez eta emakume horiek lan merkatuan sartzeko baldintzak ere zailago eginez.

Emakume askok lan merkatuan aurkitzen dituzten zailtasun espezifikoak, beraz, eskatzen dute **laneratze eta bitartekaritza bitartekoak** egokitzea, eskualde eta eskualdez gaineko mailan, oraindik izan daitezkeen genero joerak antzemateko eta neurri zuzentzaile garrantzitsuak identifikatzeko, Berdintasunerako II. Eskualde Planean planteatzen den moduan.

Inoren konturako lan ordaindua aurkitzeko dauden zailtasunak kontuan harturik, ez da harritzekoa enplegu propioa sortzea izatea gero eta gizonetako eta emakumezko gehiagok aztertzen duten aukeretako bat; sarritan, emakumeen kasuan ordutegiak errazago aukeratu eta enplegua eta ugalketa-lana hobeto uztartu ahal izango dituztelako ideia dago horren atzean. Praktikan hain sinplea ez bada ere, **ekintzailetzaren esparruan** ere ahalduztze lana egin behar da zenbait mailatan:

- **Pertsonaren ahalduntzea:** Enpresa-ekimen bat muntatu nahi duten (nahi izatea beharrezkoa baita) emakumeen beren profila eta jarrera.
- **Ahalduntze enpresariala:** Ezinbestekoa du emakumezkoen enpresa-ekimenak eraikitzea, ez soilik biziraupen mailan bideragarriak, baizik eta hazteko eta aberastasuna sortzeko gaitasunez hornituak.
- **Ahalduntze politikoa:** Emakume sareak sortzea eta indartzea eta emakumezko enpresariak erabaki politiko eta ekonomikoak hartzeko guneetan kokatzea.

Berriro ere, eskualdean ahalduntzearen arloan dauden bitartekoek pribilejiozko jarduera-esparrua eskaintzen dute izan daitezkeen genero oztopo eta joerak antzemateko eta horiei irtenbidea emateko, betiere ahalduntze ekonomikorako baldintza hobek eskaintzearen.

Azkenean, **Urola Garaiko Ahalduntze Eskolak, Berdintasun Arloaren proiektu estrategikoetako bat bera**, eskualdeko emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitiko handiagoa sustatu nahi ditu, erabakiak hartzeko espazioetan parte hartzeko zailtasun handiagoak eduki ditzaketen emakumeak ere kontuan hartuta. Horretarako, jarduerak antolatzen ditu, Berdintasuneko II. Eskualde Plana inplementatzeko unean garrantzi berezikoa den gai sorta zabal bat hartuz horretan.

Eskolan, erronka nagusietako bat baldintzak sortzea da, emakumezko ikasleek lor dezaten **ahalduntze pertsonaleko** dinamika batetik **ahalduntze gero eta kolektiboagoko** dinamiketara igarotzea, hain zuzen udal eta eskualde mailako instituzioen solaskide baliozko gisa bete dezaketen papera ere ikusgarri egin dadin.

- **Sareko lanak**, Tolosarekin lehenik eta 2014az geroztik Arrasate, Azpeiti, Eibar eta Hernaniko Ahalduntze Eskolekin eginak, lagundu egin du eskolaren beraren izaera sendotzen, eskualdeko emakumeak ahalduntzeko erreferentziazko espaziotzat.
- Eskualdeko edozein emakumeri zabaldutako prestakuntza-jardueraz gain, Urola Garaiko Eskola **ahalduntze talde egonkorak dinamizatzeari** emandako garrantziagatik nabarmentzen da; talde horiek emakume gazte, emakume migratzaile, emakume musulman, emakume zaintzaile eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzenduak dira zehazki. Eskolaren programazioa oso lotuta dago Eskolako beste prestakuntza-espazioekin berrelikatzen diren talde-prozesu horietatik ondorioztatzen diren beharrei.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Plan honetan Eskolatik abiatutako lana sendotu nahi da, Emakumeen Etxe bateranzko bidean jar dadin, abiatu diren ahalduntze prozesuak finkatzeko eta emakumeen behar praktikoei lotutako gaiak, autonomia ekonomiko handiagoarekin lotuei, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gainditzearekin lotutako behar estrategikoagoei, ekiteko.



Ugalketa-lanari dagokionez sortzen diren desberdintasun egoerei arreta berezia jarri beharra agerian jartzen duten datuak hainbat aldetatik aztertu behar dira, batez ere erantzunkidetasun maila txikiagatik, eta ez soilik gizonaren eta emakumearen artean, baizik eta baita familien, erakunde publikoen eta lan merkatuaren artean ere. 2014an egindako diagnostikotik joera batzuk atera ditzakegu, erakusten baitute **zaintzen arazoari** ekitea premiazko erronka bihurtu dela:

- Etxeko lanen garapenari dagokionez, eta norbaitek oraindik zalantzarik baldin bazuen argitzearen, EUSTATEk egindako denborari buruzko inkestako datuek erakusten dute ezen bai EAEn bai Goierriko eskualdean (Urola Garaiko udalerriak barne) emakumeek beti-beti -ez dio axola asteko zer egun den- denbora gehiago ematen dutela lan horietan, gizonezkoek baino.
- Etxean pertsonak zaintzeari dagokionez, berriro ere dedikazio handiagoa ikusten dugu emakumeen kasuan, jarduera horretan aritzeko. Eguneko batez bestekoa 2 ordukoa bada ere hiru lurralde historikoetan, Goierriko eskualdean ikusten da emakumeen aldetiko batez besteko dedikazio handiena (2 ordu eta 26 minutu), eta gizonekiko alde handiena halaber, ordubete pasatxoko tartea dago eta bien artean (gizonezkoek 1 ordu eta 26 minutuko denbora ematen dute).
- Sexu bakoitzak ugalketa-lanei eskainitako batez besteko denborak oso alde handiak ezkutatzen ditu esparru honetan egiten diren lan motei dagokienez: aiten eginkizunak gorantz egin du, egunerokoan, adingabeen zaintzaren arloan, baina adineko pertsonen, gaixoen edota desgaitasun motaren bat dutenen zaintzak emakumeen eginkizuna izaten segitzen du ia-ia erabat (oro har, % 80 eta 85 bitarte). Eta zaintza mota horixe da, hain zuzen ere, zaintzaileen artean neke fisiko, emozional eta psikiko handiena eragiten duena, ikusten baitute kasuan kasuko senidea ahulduz doala, eta gero eta laguntza handiagoa behar duela denbora igaro ahala. Zaintza intentsuak dira, denboran luzeak, eta beste jarduera bai profesional bai aisiako batzuk zertzeari uko egin beharra dakarte sarritan.

Urola Garaiko datu demografikoak ikusten baditugu, konturatuko gara **zaintza beharrek gorantz segitu behar dutela:**

- Lau udalerriek antzeko gizonezko eta emakumezko portzentajeak dauzkate: emakumezkoak % 49,8 inguru dira, batez beste, eta gizonezkoak % 51,2 inguru, baina 70 urtetik gora, **eskualdeko herri guztietan emakumeen portzentajea gizonezkoena baino handiagoa da.**

- Adineko biztanleriak duen laguntza beharrak gora egiten du bizi-itxaropena luzatu ahala.
- **Zahartze indizea zein gainzahartze indizea gorantz joan dira lau udalerrietan.** Udalerrika, zahartze indize txikiena Urretxuk dauka (% 20), eta handiena, berriz, Zumarragak (% 23). Haur indizeari dagokionez, honek ere goranzko joera eduki du udalerrri guztietan. Legazpi da haur indize txikiena duen herria, zehazki % 13,6koa. Edonola ere, haur indizea zahartze eta gainzahartze indizeak baino nabarmen txikiagoa da, eta horrek alerta jarri behar gaitu, nolabait, belaunaldi aldaketaren inguruan etorkizunean sortuko diren zailtasunen aurrean; gainera, adineko pertsonen gaur egun izan dezaketen familiaren laguntzak murrizte bat jasango du agian.

Emakumeek gizonek baino bizi-itxaropen handiagoa izateak ez du soilik esan nahi zahartzaroko zaintzetarako baliabide publiko gehiago behar dutela, baizik eta senideentzako **ohiko zaintzaile lanetan ari direla, adinean aurrera doazela gainera**, hain zuzen emakumeek berek bere burua zaintzeko denbora eta laguntza behar duten garaian.

- Hala, ikusten dugu ezen erreferentziako hiru urteetan (2009, 2011 eta 2013) Urola Garaian egindako mendekotasunaren 1.352 balorazioetatik % 61 emakumeei egin zitzaizela. Gizonen eta emakumeen arteko portzentaje aldeak nabarmenagoak dira pertsona baloratuen adinak gora egin ahala.
- Bestetik, mendekotasunarekin lotutako prestazio ekonomikoak nork jasotzen dituen begiratzen badugu, berriro egiaztatzen da emakumeak direla, neurri handi-handi batean, beren senideen ohiko zaintzaileak; aldi berean 80 urtetik gorako pertsonen portzentajearen gorakada ikusten da, 2014an zaintzaile guztietatik % 12 izatera iritsi baitira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Desgaitasuna duten Pertsonen Erroldak, 2010ekoak, emandako datuen arabera, Urola Garaian erregistratutako desgaitasuna duten pertsonen kopurua 2.313koa zen; horietako gehienak gizonezkoak ziren, batez ere Zumarraga eta Legazpiko biztanleak. Aipatu azken herria nabarmentzen dugu bereziki, horretan desgaitasun motaren bat zuen biztanleria guztiaren % 11,29 baitzen 2013an.
- 2005eko urtearekiko bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu ezen bai probintzian bai Urola Garaian desgaitasuna duten pertsonen kopuruak gora egin duela nabarmen. Urola Garaian kasu gorakada 995 pertsonakoa izan da (biztanleria guztiaren % 3,8), eta batez ere Zumarragan izan da, kopurua bikoiztu egin baita bertan (424 pertsona 2005ean, eta 984 pertsona 2013an).

Etorkizunera begirako bilakaerari dagokionez, aipatu behar, inolaz ere, familia-ereduen bilakaera. Bikote batek eta seme-alabek osatutako familiak badira ere udalerrri bakoitzeko guztirakoan portzentaje handiena hartzen dutenak (% 44,6 eta % 51,3 bitartean, kasuen arabera), azpimarratu behar udalerriotan kopuruetan bigarren eta hirugarren familia motak seme-alabarik gabeko bikoteak eta guraso bakarreko familiak direla, hurrenez hurren. Kasu bi horietan, datuak bere ondorioak dauzka ugalketa-lanaren gainean:

- Alde batetik, seme-alabarik gabeko familia nuklearren gorakadak esan nahi du gero eta gehiago izan daitezkeela **adin batera heltzen direnean zainduko dituen senide hurrekorik izango ez duten pertsonak**.
- Bestetik, seme-alabak edukitzeko adina gero eta gehiago atzeratzen ari diren bikoteen kasua dugu; horrek esan nahi du ezen, etorkizun hurbilean, 40 eta 60 urte bitarteko emakume eta gizon askok 70 urte edo gehiagoko bere gurasoak **zaindu beharko** dituztela, **berak jarduera profesionalean erabat murgilduta segitzen dutenean**, eta are zailtasun handiagoak topatuko dituzte lan-bizitza eta familia uztartu ahal izateko.

Azkenean, ezin dugu ahanzi zainketen gaiari lan ordainduaren ikuspegitik heldu beharra ere: kasu honetan ere emakumeak dira etxeko lanetan eta zainketa-lanetan modu profesionalean ari diren gehienak -sektore feminizatua da, prekarioa, ezkutuko ekonomiaren parte den lan-poltsa oso handia dago horretan, eta hemengo bertako emakumeak zein atzerritarrek aritzen dira horretan-.

Etxeko lanetan ari diren emakume migratzaileen kasuan, 2011ko urteaz geroztik Urola Garaiko Ahalduntze Eskolaren esparruan horiekin egindako lanak aukera eman digu bere familiak, bai jatorrizko herrialdean daudenak bai Urola Garaian bertan bizi direnak, mantentzeko eta zaintzeko beharraz gure eskualdera iritsi direnen bizipenak dokumentatzeko. Lanaren truke diru gutxi jasotzeaz gain, etxeko lanetan ari diren emakume atzerritarrek, prekarietate baldintzak direla-eta, zailtasunak jasaten dituzte sarri, lan baldintza duinak errespetatu dakizkien, eta beldur dira **salatzeko eta dagozkien eskubideak baliatzeko ere**. **Emakumeek berek dioten moduan, prekarietate baldintza horiek okerrera egin dute krisia hasi zenez geroztik**.

Faktore askotariko horien aurrean, argi dago orain bertan lan aktibo bat egiten hasi ezean mendekotasunaren arretarako **zerbitzu publikoen estaldura maila areagotzeko**, ugalketaren esparruan lan egiten dutenen **lan baldintzak hobetzeko** eta biztanleriarengan eta lan merkatuan gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasun maila askoz handiago bateranzko **balio aldaketa bat eragiteko**, emakumeek jasango dituztela ordaindu gabeko zaintza-lanaren eta etxeko lanaren parte neurritz gaineko bat bere gain hartzearen kostuak, bizitza terminoetan (kostu ekonomikoak, fisikoak, emozionalak, harreman mailakoak, afektiboak, etab.). Toki mailako eskumenen esparruan alderdi horietan guztietan eragitea da etorkizuneko Berdintasunerako II. Eskualde Planaren helburu garrantzitsuenetako bat.

Urola Garaian egindako diagnostikotik -hori 2009 eta 2013 bitartean eskura zeuden datuetan oinarritu da nagusiki- joera kezkagarri batzuk atera dira. Joera horiek balidatu egiten dute orain arte bai prebentzio lanaren arloan bai indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen kasuko detekzio eta arreta hobetzera begira zerbitzuen arteko koordinazioaren arloan egindako ahalegin handia, horri jarraipena eman beharra agerian uztearekin batera.

Aztertutako azken datuek, 2015eko urtariletik irailera bitartekoak dira, erakusten dute une hartan 30 pertsona ari zirela arreta jasotzen indarkeria matxista, genero indarkeria edo familia barneko indarkeriagatik. Zenbait zerbitzu edo erakundeek zuzenean artatzen dituzten emakumeek jasaten duten indarkeria "ikusgarri" hori indarkeriaren icebergaren punta besterik ez da; indarkeria hori era askotan ageri da, toki askotan, eta oso profil desberdineko emakumeek jasaten eta aurre egiten diote. Arreta emandako emakume kopuruaren atzean -kopuru berez kezkagarria izaki- indarkeriazko egoerak isilean, salatzeke zein arreta zerbitzuetara hurbiltzeke jasaten dituzten beste emakume askoren kasuak ezkututzen dira, eta horregatik are beharrezkoagoa da indarkeria matxistaren kontrako borrokan giza baliabide eta bitarteko ekonomikoetan inbertitzea.

Arreta bitartekoetarako sarrera ematen duten zerbitzuetan arreta emandako emakumeei eta Urola Garaian erasotzaileek dituzten ezaugarriei dagokionez, honakoa esango dugu:

- Indarkeriaren biktima diren emakumeek jartzen duten salaketa kopuruan pixkanakako gorakada ikusten ari da. Profilarik dagokionez, salatzen duten emakume gehienak gazteak dira (26 eta 45 urte bitartekoak); baliteke hori adierazle positibo bat izatea, hau da, gazte jendeari zuzendutako prebentzio lan espezifikoan egindako ahaleginei esker emakume gazteen artean indarkeria matxista gero eta hobeto detektatzen delako eta gero eta gutxiago toleratzen delako adierazlea izatea.
- Salaketa gutxiago dago 18 urtetik beherakoen eta 65 urtetik gorakoen artean; adin-tarte horietan ere izaten da indarkeria matxista, baina isilago geratu ohi da. Emakumeek **bikotekidearengandik edo bikotekide-ohiarengandik** indarkeria **fisiko edota psikologikoa** jasan dutenean salatzen dute batez ere (kasuetatik % 56,3).
- Bestetik, **salaketa jartzen duten lau emakumetik hiru autoktonoak dira**. Eta emakume immigranteen kolektiboan, nagusiki Latinoamerikatik helduek salatzen dute. Erasotzaileen profilarik dagokionez, gehienak autoktonoak dira, hemengo bertakoak alegia, eta 26 eta 55 urte bitartekoak. Aipagarria da, halaber, bikote mistoetan (emakume immigrantea eta hemengo bertako erasotzailea) gertatzen ari den kasu kopuruaren gorakada.

- Ikusten dugunez, eta jendeak uste ohi duenaz zeharo bestela, biktima zein erasotzaile gehienak autoktonoak dira, baina arreta handia jarri behar da **emakume migratuengan**, berak proportzionalki gehiago hurbiltzen direlako zerbitzu publikoetara emakume autoktonoak baino, ez hainbeste indarkeria gehiago jasaten dutelako, baizik eta dituzten bizi-baldintzak normalean askoz prekarioagoak direlako, behar besteko bitarteko ekonomikorik zein sare sozialik gabeak indarkeriatik irteteko prozesuari modu autonomo batean ekin ahal izateko. Jatorriari erreparatzen badiogu, Afrikako emakumeen kolektiboa da gizarte babesik ezaren daturik altuenak ematen dituenak.
- Gainera kontuan hartu behar da, garrantzitsua da, esku-hartze dinamiketan **amatasunak eta zainketek duten eragina**, zeren eta mendekotasuna duten pertsonak (adingabeak edo adinekoak) bere ardurapean edukitzeak eragin handia baitu indarkeria jasaten duen emakumeak hartzen dituen erabakietan, eta baita azkenean indarkeria matxistaren biktima zuzen edo zeharkako bihurtzen direnei ere arreta eman ahal izan dakien beharko den bitarteko motan ere.

Arreta eta prebentzioko bitarteko instituzionalei dagokienez:

- Indarkeria matxista salatzen duten emakumeen kasuan, horien **lehen kontaktua** Ertzaintza edo udaltzaingoa izan ohi da. Beste kasu batzuetan, lehenik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzen dute, baina erregistratzea ezinbestekoa den zenbait zerbitzutan zeharreko ibilbide bat abiatzen da; Mankomunitateko Berdintasun Arloak lagundu egin behar du ibilbide horretan, eta abian jarri behar ditu deribazioen koordinazioaren hobekuntza bermatzeko beharrezko baldintza estrukturalak optimizatzeko aldaketak, laguntza, babes, bizitzako denbora eta prozesuekiko egokitzapenean zentratutako arreta baten, emakumeentzat ahaldundutzaile eta indargarria izango den baten bermea lortzeko bidean.
- Horretarako erabilitako bitartekoak 2012an **Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen biktima diren emakumeen zuzendutako Arreta Hobetzeko Jarduerarako eta Erakundearteko Koordinaziorako Eskualdeko I. Protokoloa** onartzea eta hori inplementatzearren **Erakundearteko Mahai Teknikoa** abian jartzea izan dira. Aurrerapauso garrantzitsuak izan dira jada, batez ere erakunde eta zerbitzuen artean datu garrantzitsuen bilketa koordinatzeari eta arreta emandako emakumeen ibilbideen gaineko jarraipenari dagokienez. Hortik dator II. Plan honetan aurrerapauso horiek hobetzera eta finkatzera zuzendutako helburuak eta neurriak ezartzea:
- Azkenean, Urola Garaiko eskualdea EAEko erreferentzia nagusietako bat da, toki mailan, prebentzio bitartekoak ezartzei dagokionez, horien artean dira eta, esaterako, indarkeria matxistaren Prebentziorako Zerbitzua, nerabe eta gazteei, irakasle, hezitzaile eta familiei zuzendua, eta eskualdeko Ahaldundutze Eskolatik bultzatutako kontzientziatze eta ahaldundutze espazioak. 2014ko urtean zehar, adin guztietako 450 pertsona baino gehiago izan ziren dauden prebentzio bitartekoetaren batean.



III. zatia

Esku-hartze ardatzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Planean



+ 1. ARDATZA / EMAKUMEEN
ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO
GOBERNANTZA

1. PROGRAMA:

GENERO IKUSPEGIA
TRANSBERTSALIZAT
U NAHI IZATEA ETA
AHAL IZATEA

2. PROGRAMA:

GENERO
TRANSBERTSALITA
TEA EZAGUTZEA
ETA NEURTZEA



1. ARDATZA / 1. PROGRAMA – Gen. Ikusp. transbertsalizatu nahi eta ahal izatea

Gobernantza ardatzetik, batez ere berdintasunerako eskualde politikekiko konpromiso politiko eta tekniko finkatu nahi da, genero transbertsalitatearen estrategia garatzearren eta, beraz, genero ikuspegia botere publikoen politika eta ekintza guztietan txertatzeko printzipioa gauzatzearren, politika horien diseinutik ebaluaziora arte, hain zuzen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4. artikulua ezartzen duen moduan. Estrategia honen garapenaren abiapuntua ideia bat da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko lanak bizitzako arlo eta esparru guztiak ukitzen dituelako ideia alegia; hau da, ez dagokio politika publiko bakar bati, baizik eta politika guztiei, eta horrenbestez guztiek dute genero diskriminazioak eta desberdintasunak ez erreproduzitzeko erantzukizuna. Ildo horretatik, eta aipatu helburua lortzeko bidean betiere, Eskualdeko Berdintasun Arloa toki eta eskualde mailako beste arlo guztiak bultzatzeko eta horiei aholkularitza eskaintzeko organoa da.

Horretarako, alde batetik birsortu egin behar da "nahi izate" kolektiboa, hau da, elkarrekin aurrera egin ahal izatearren ahaleginak biltzen segitzeko berriazko borondatea, udalek Mankomunitateari emandako agindua berretsiz eta Mankomunitatearen Batzorde Eragilearen eginkizuna sendotuz berdintasun politikei dagokienez erabakiak hartzeko organo formaltzat, II. Plan honetan adostutako neurriak inplementatzeko beharrezko konpromiso ekonomikoa sendotzearekin batera. Bestetik, adostua inplementatu "ahal izateak" eskatzen du erabakitzeko eta koordinatzeko funtsezko egiturak egokitzea, eta berdintasun politika publikoetan eragiteko toki eta eskualde mailako gaitasuna sendotzea eskualde mailako edo erakundearteko lantalde teknikoetan parte hartuz edota horrelako talde berriak sortuz.

Apustu honek ondorengo bi helburu estrategikoak ekarri ditu:

1.1

HELB. ESTRATEGIKOA

- Berdintasun politiketarako toki eta eskualde mailako konpromiso politiko eta tekniko finkatzea (genero ikuspegiaren transbertsalizazioa inplementatzeko NAHIA behar da).

1.2.

HELB. ESTRATEGIKOA

- Eskualdeko berdintasun politiken koordinazio politiko eta tekniko sendotu behar da, udalen barne funtzionamenduan txertatuagoko genero arkitektura bat diseinatzeko horretarako (adostua inplementatzeko AUKERA behar da).



1. ARDATZA / 1. PROGRAMA – Gen. Ikusp. transbertsalizatu nahi eta ahal izatea

32

M.
HEL.
EST.

- Berdintasuneko eskualde politiketarako konpromiso politiko eta tekniko finkatzea (genero ikuspegiaren transbertsalizazioa inplementatzeko NAHIA behar da).

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA			
			2016	17	18	19
1.1.1. Berdintasun politiken ainguraketa politikoa finkatzea eskualde mailan.	1.1.1.1. Sendotzea Mankomunitatearen Batzorde Eragileak II. Plana bultzatu, garatu, jarraitu eta ebaluatzeko unean eta berdintasun politiketako erabakiak hartzeko organo formal gisa duen eginkizuna.	Mankomunitatearen Batzorde Eragilea	+	+	+	+
	1.1.1.2. Gogoeta espazio bat zabaltzea, ikuspegi juridikotik eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak aginduarekiko egokitzapenarenetik, eskualde esparruan berdintasunerako politikaren kudeaketa finkatzera begira.	Mankomunitatearen Batzorde Eragilea			+	+
1.1.2. Erantzunkidetasun maila areagotzea tokiko arlo teknikoaren eta Berdintasun Arloaren artean, berdintasunerako politiken inplementazioan.	1.1.2.1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera zuzendutako aurrekontu bitarteko berriak ikusgarri egitea eta jasotzea, modu progresiboan, helburu eta jarduerak zehatzak definitu diren arlo eta programa funtzional guztietan, berdintasun politiken finantzaketako erantzunkidetasuna areagotuz horrela.	Udal arloak, Uggasa	+	+	+	+
	1.1.2.2. Egun dauden edo sortzen diren eskualdeko lantalde teknikoetan parte hartzea, horietan garatzen baitira Berdintasuneko II. Planeko neurri transbertsalak koordinatzeko eta inplementatzeko jarraibideak.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+



1. ARDATZA / 1. PROGRAMA – Gen. Ikusp. transbertsalizatu nahi eta ahal izatea

33

12.
HEL.
EST.

- Eskualdeko berdintasun politiken koordinazio politiko eta teknikoa sendotu behar da, udalen barne funtzionamenduan txertatuagoko genero arkitektura bat diseinatzuz horretarako (adostua inplementatzeko AUKERA behar da).

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
1.2.1. Eskualdeko berdintasun politiken gaineko funtsezko erabaki eta koordinazio organoen osaketa eta eginkizunak birdefinitzea.	1.2.1.1. Jarraipena ematea Eskualdeko Berdintasun Batzordeari; horren kideak mankomunitateko eta lau udalerrietako ordezkari politikoak eta berdintasunaren arloko tokiko arduradun teknikoak dira, eta Eskualdeko Berdintasun Arloak koordinatzen du batzordea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	1.2.1.2. Berdintasuneko azpibatzerde tekniko bat ezartzea, gutxienez, Eskualdeko II. Berdintasun Planaren programazio eta jarraipenerako, berdintasunaren arloko tokiko arduradun teknikoek eta Uggasakoek osatuta eta eskualdeko Berdintasun Arloak koordinatuta.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
1.2.2. Berdintasuneko politika publikoetan eragiteko toki eta eskualde mailako gaitasuna areagotzea eskualde mailako eta erakundearteko lantalde teknikoetako partaidetzaren bidez			+++
	1.2.2.1. Kontratazio eta diru laguntza publikoen arloko berdintasun klausulei buruzko lantalde bat ezartzea, hasiera batean 4 udaletako eta mankomunitateko idazkariek osatua	Mankomunitateko eta udaletako Berdintasun Arloa	++++
	1.2.2.2. Indarkeria matxistaren arloko arreta protokoloa koordinatzeko mahai teknikotik egindako lana finkatzea.	Erakunde sinatzaileak	++++
	1.2.2.3. Gaste jendearen artean indarkeria matxista prebenitzeko Talde Teknikoaren eginkizuna eta funtzionamendua finkatzea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	1.2.2.4. Berdintasun politikak koordinatzeko espazio bat ezartzea Uggasa - Eskualdeko Garapen Agentzian.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	1.2.2.5. EUDELeK bultzatutako Berdinsarea/Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarearen esparruan antolatzen diren lantalde teknikoetan parte hartzea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	1.2.2.6. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Berdintasuneko Teknikarien Sarearen esparruan antolatzen diren lantalde teknikoetan parte hartzea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	1.2.2.7. Arrasate, Azpeiti, Eibar, Hernani eta Urola Garaiko Ahalduntze Eskolek osatzen duten Gipuzkoako Ahalduntze Eskolen Sarearen koordinazio taldean parte hartzea.	Berdintasun Arloa Mankomunitatea	++++



1. ARDATZA / 1. PROGRAMA – Gen. Ikusp. transbertsalizatu nahi eta ahal izatea

34

1.M.
HEL.
EST.

- Berdintasun politiketarako udal konpromiso politiko eta tekniko finkatzea (genero ikuspegiaren transbertsalizazioa inplementatzeko NAHIA behar da).

HELBURU ESTRAT. 1.1.1.

Berdintasun politiken ainguraketa politikoa finkatzea eskualde mailan.



HELBURU ESTRAT. 1.1.2.

1.1.2. Erantzunkidetasun maila areagotzea tokiko arlo teknikoen eta Berdintasun Arloaren artean, berdintasunerako politiken inplementazioan.



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

- ☐ Mankomunitatearen Batzorde Eragilearen bileretan eskualdeko berdintasun politikei eskainitako gai-zerrendako gairik baden bilera portzentajea. (Iturria: bileretako aktak)
- ☐ Batzorde Eragileak Berdintasunerako II. Eskualde Planari edota berdintasun politikekin lotutako beste gai batzuei dagokionez hartutako erabakien eta erabaki moten zerrenda. (Iturria: bileretako aktak)
- ☐ Toki mailako arlo teknikoek beren urteko aurrekontuetan berariaz II. Planeko neurriak garatzera bideratutako zenbatekoen igoeraren portzentajea, aurrekontu igoeraren portzentajearekin batera. (Iturria: Urteko Programa Operatiboa - II. Planeko neurrien jarraipen fitxak)
- ☐ II. Planeko neurri transbertsalak inplementatzeko eskualdeko lantalde teknikoetan parte hartzen duen udal arlo kopurua. (Iturria: bileretako aktak)

1. ARDATZA / 1. PROGRAMA – Gen. Ikusp. transbertsalizatu nahi eta ahal izatea

1.2.
HEL.
EST.

- Eskualdeko berdintasun politiken koordinazio politiko eta teknikoa sendotu behar da, udalen barne funtzionamenduan txertatuagoko genero arkitektura bat diseinatuz horretarako (adostua inplementatzeko AUKERA behar da).



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 1.2.1.

Eskualdeko berdintasun politiken gaineko funtsezko erabaki eta koordinazio organoen osaketa eta eginkizunak birdefinitzea.



- ☐ Eskualdeko Berdintasun Batzordeak eta Berdintasunerako II. Eskualde Planaren programazio eta jarraipenerako azpibatzerde teknikoak egindako bilera kopurua. *(Iturria: bileretako aktak)*
- ☐ Eskualdeko berdintasun politiketako funtsezko erabaki eta koordinazio organoetan parte hartzera deitutako erakundeek bileretan duten asistentzia ehunekoa. *(Iturria: bileretako aktak)*

HELBURU ESTRAT. 1.2.2.

Berdintasuneko politika publikoetan eragiteko toki eta eskualde mailako gaitasuna areagotzea eskualde mailako eta erakundearteko lantalde teknikoetako partaidetzaren bidez



- ☐ Eskualdeko lantaldeetan parte hartzera deitutako arlo eta erakundeek bileretan duten asistentzia ehunekoa. *(Iturria: bileretako aktak)*
- ☐ Eskualdeko lantaldeetan parte hartzen duten erakundeen asebetetze maila *(Iturria: 2017 eta 2019an programatutako II. Planeko ebaluazioen esparruan egindako balorazio kualitatiboak)*
- ☐ Erakundearteko lantaldeen esparruan Eskualdeko Berdintasun Arloak harremanak izan dituen udal zein udal mailaz gaindiko erakunde kopuruaren eta erakunde motaren urteko zerrenda. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*



1. ARDATZA / 2. PROGRAMA - Genero transbertsalitatea ezagutzea eta neurtzea

Toki eta eskualde mailako administrazio publikoen gobernantzan genero ikuspegia txertatzeak eskatzen du horien zerbitzuko pertsonalak pixkanaka bereganatzea emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ezagutzak, hain zuzen genero arrakala nagusiak eta desberdintasun alderdi premiazko eta garrantzitsuenak identifikatu ahal izan ditzaten, ondoren horien gainean esku hartzeko beren ardurapekoak diren politiken bidez. Arduradun politikoen sentikortzea, era berean, funtsezkoa da desberdintasunaren aurkako borroka erakundeen agendetako lehenasuntzat jartzeko, eta horien aitzindaritzak ahalbide dezan berdintasunaren arloko politika publikoen multzoaren erantzunkidetasuna. Horrela, II. Plan honek ikaskuntza instituzionalerako politika sortzearen alde egiten du, toki eta eskualde mailako arloen eguneroko praktikan zuzenean ainguratutako esperientzia pilotuak eta prestakuntza-ekintza proiektuak abian jartzearen inguruan garatzen den "jakintza" bat sortzearen alde.

Azkenean, politika publikoetan genero ikuspegia transbertsalizatzeak eskatzen du, era berean, neurriak abian jartzea, udal eta eskualde mailako erakundeen gardentasuna areagotzeko eta kontuak ematea hobetzeko, lortutako emaitzak modu egoki batean "neurtzeko" baldintza egokiak sortzen diren bitartean.

Ilido horretatik, programa honek ondoko 2 helburu estrategiko hauek dauzka:





1. ARDATZA / 2. PROGRAMA - Genero transbertsalitatea ezagutzea

37

eta neurtzea

2.1.
HEL. EST.

- Ikaskuntza instituzionalerako politika sortzea, Mankomunitatearen eta udalen barnean izaera transbertsal sendoko berdintasun politikak inplementatzeko arrazoiaren eta moduaren inguruan (genero ikuspegia transbertsalizatzen JAKITEKO).

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
2.1.1. Pertsonal tekniko eta politikoak politika publikoetan genero ikuspegia txertatzera bideratutako prestakuntza-bitartekoetarako duen aukera finkatzea.	2.1.1.1. Genero transbertsalitateko ikaskuntzarako urtebiko planak ezartzea II. Planean jasotako neurriak gauzatzeko ardura duten teknikarientzat.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++
	2.1.1.2. Eskualdeko hautetsiek Mankomunitatetik zein beste euskal administrazio eta erakunde batzuetatik berdintasun politiken inguruan antolatzen diren prestakuntza-ekimenetan parte hartzea sustatzea.	Mankomunitateko Berdintasun Batzorde Politikoa.	++++
	2.1.1.3. EUDELeKin negoziatzea Virginia Woolf Basqueskolaren esparruan eskualdean aldiari-aldiari euskal hautetsiei zuzendutako ikastaroen antolaketa.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	2.1.1.4. Berdintasun gaien inguruko laneko metodologiei eta prestakuntza-eskaintzei buruzko informazioa, udaletako eta Mankomunitateko teknikariei eta politikariei zuzendua, biltzea eta elkarrekin trukatzeko dagoeneko badiren Berdintasun Arloko online espazioen bidez.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+++
2.1.2. Genero ikuspegiaren transbertsalizazio maila areagotzea, prestakuntza-ekintza proiektuak abian jarri horretarako.	2.1.2.1. Mankomunitateetatik tokiko berdintasun politikak garatzeko eredu definitzeko esperientzia pilotua antolatzea eta EAEko beste mankomunitate batzuekiko topaketa antolatzea, praktika onak partekatu eta proiektu pilotuaren emaitzak sozializatzeko.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++
	2.1.2.2. Prestakuntza-ekintza proiektu bat diseinatzea eta garatzea eskualdeko udalek eta Mankomunitateak prestatzen dituzten kontratazio, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasun klausulak jasotzeko, erakunde horietatik dagoeneko egindako lanari jarraikiz.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+++
	2.1.2.3. Emakumeen presentzia bultzatzea eskualdeko udalek antolatzen dituzten lehiaketa eta sarietako epaimahaietan, horietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekidea izateko aurrerapausoak egitearren.	Udal arloak	++
	2.1.2.4. Eskatzen duten eta II. Plan honetan jasotako neurrien garapenean zuzenean inplikaturik ez dauden arlo lokaletako laneko prozesuetan aholkularitza eskaintzea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++



1. ARDATZA / 2. PROGRAMA - Genero transbertsalitatea ezagutzea eta neurtzea

38

2.2.
HEL.
EST.

- Eskualdeko berdintasun politikak ebaluatu ahal izateko baldintzak sortzea, gardentasun eta kontu emate publikoaren ikuspegitik. (NEURTU egin behar da berdintasun politiken transbertsaltasun maila).

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
2.2.1. Udal eta eskualde mailako erakundeen gardentasuna eta kontuak ematea areagotzea, berdintasun politikak gauzatzeari dagokionez.	2.2.1.1. Eskualdeko berdintasun politiken barne (Mankomunitate zein udal mailan) zein kanpo ikusgarritasuna sendotzeko komunikazio estrategia definitzea eta garatzea, erakundeetatik gardentasun handiagoa emanez eta biztanleengan kontzientziatze maila handiagoa eraginez.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+++
	2.2.1.2. Informazioa bildu eta tratatzeko udal eta eskualde mailako sistemetan sexu aldagaia sartzeko jarraibideak finkatzea, Berdintasuneko Plan honetan sartutako neurriak gauzaten diren unean genero analisia egin ahal izatearren.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+
	2.2.1.3. Eskualde eta udal mailako zerbitzu garrantzitsuen kanpo kontrataziorako klausulen artean txostenak eta urteko memoriak egiteko unean sexuen arabera bereizitako datuak emateko klausula sartzea bultzatzea.	Udalak eta Mankomunitatea	++
2.2.2. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Planaren jarraipen eta ebaluaziorako sistema bat formalizatzea	2.2.2.1. Berdintasun Planaren koordinazio eta jarraipenerako mahai teknikotik eramatea urteko programa operatiboak egiteko lanaren aitzindaritza, betiere eskualde mailan eskumena duten organo politikoei aurrez berretsita.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	2.2.2.2. Urteko programa operatiboetan sartutako jarraipen fitxak egitea, udal eta eskualde mailako arloen erantzunkidetasun maila pixkanaka handituz horiek behar bezala erabili eta bete ditzaten.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa Arlo guztiak	++++
	2.2.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Planaren tarteko ebaluazio txostena egitea, bereziki azpimarratuz jarraipen fitxetan definitutako prozesu adierazleak.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+
	2.2.2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Planaren amaierako ebaluazio txostena egitea, inplementazio maila eta lortutako emaitza nagusiak baloratuta.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+



1. ARDATZA / 2. PROGRAMA - Genero transbertsalitatea ezagutzea eta neurtzea

39

HLL.
EST.
2.1.

- Ikaskuntza instituzionalerako politika sortzea, Mankomunitatearen eta udalen barnean izaera transbertsal sendoko berdintasun politikak inplementatzeko arrazoiaren eta moduaren inguruan (genero ikuspegia transbertsalizatzen JAKITEKO).



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 2.1.1.

Pertsonal tekniko eta politikoak politika publikoetan genero ikuspegia txertatzera bideratutako prestakuntza-bitartekoetarako duen aukera finkatzea.

HELBURU ESTRAT. 2.1.2.

Genero ikuspegiaren transbertsalizazio maila areagotzea, prestakuntza-ekintza proiektuak abian jarri horretarako.

- ☐ Berdintasuneko II. Eskualde Planeko neurriak garatzearren genero ikuspegia transbertsalizatzeari aplikatutako prestakuntza orduen kopurua. (Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)
- ☐ II. Planeko neurrien garapenean inplikatura dauden udal eta eskualde mailako teknikarien artean genero ikuspegia transbertsalizatzearen inguruko prestakuntza jaso dutenen portzentajea. (Iturria: 2017 eta 2019an programatutako II. Planeko ebaluazioen esparruan egindako kalkulua)
- ☐ Berdintasuneko II. Eskualde Planaren esparruan edo Berdintasuneko udalez gaindiko erakundeek antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu duen politikari portzentajea. (Iturria: Eskualde Arloaren bertaratze zerrendak; II. Planeko ebaluazioetarako politikariei egindako galdetegia)
- ☐ Berdintasun politikei eta II. Planaren inplementazioari buruzko informazioa biltzeko eta trukatzeko espazioa, eskualdeko Berdintasun Arloak sortu eta elikatutako online espazioetan garatua. (BAI / EZ)
- ☐ Praktika onak partekatzeko eta berdintasuneko tokiko politikak mankomunitateetatik garatzeko proiektu pilotuaren emaitzak sozializatzeko antolatu den topaketan parte hartu duen udal, eskualde eta udalez gaindiko erakunde kopurua eta erakunde motak (Iturria: topaketako izen-emate zerrenda)
- ☐ Berdintasuneko klausulak sartu diren kontratazio eta diru laguntza publikoen portzentajea. (Iturria: 2017 eta 2019an programatutako II. Planeko ebaluazioen esparruan egindako kalkulua)
- ☐ Eskualdeko udalek antolatutako lehiaketa eta sarietako epaimahaietako emakume portzentajea. (Iturria: 2017 eta 2019an programatutako II. Planeko ebaluazioen esparruan egindako kalkulua)
- ☐ Planaren garapenean zuzenean inplikatu gabeko toki arloetatik egindako kontsulta eta aholkularitza eskaeren kopurua eta motak. (Iturria: Eskualdeko Berdintasun Arloaren erregistroa)



1. ARDATZA / 2. PROGRAMA - Genero transbertsalitatea ezagutzea eta neurtzea

40

HEL.
EST.
2.2.

- Eskualdeko berdintasun politikak ebaluatu ahal izateko baldintzak sortzea, gardentasun eta kontu emate publikoaren ikuspegitik. (NEURTU egin behar da berdintasun politiken transbertsaltasun maila).



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 2.2.1.

Udal eta eskualde mailako erakundeen gardentasuna eta kontuak ematea areagotzea, berdintasun politikak gauzatzeari dagokionez.



- ☐ Datuak sexuen arabera bereizirik jasotzen dituzten txosten eta urteko memoriak egiteari buruzko klausula sartu den kanpo kontrataziorako baldintza-agirien portzentajea. (Iturria: 2017 eta 2019an programatutako II. Planeko ebaluazioen esparruan egindako kalkulua)

HELBURU ESTRAT. 2.2.2.

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Planaren jarraipen eta ebaluaziorako sistema bat formalizatzea



- ☐ Berdintasuneko II. Eskualde Planeko Urteko Programa Operatibo kopurua. (Iturria: Urteko Programa Operatiboan jarraipen fitxak)
- ☐ Berdintasuneko II. Eskualde Planean sartutako neurrien jarraipenerako fitxa kopurua. (Iturria: Urteko Programa Operatiboan jarraipen fitxak)

3. PROGRAMA:

EMAKUMEEN
AUTONOMIA
EKONOMIKOR
ANTZ

4. PROGRAMA:

BIZILEKU
PROPIOA:
EMAKUMEEN
ETXEA

+ 2. ARDATZA / EMAKUMEEN
PARTAIDETZA
SOZIOPOLITIKORAKO
AHALDUNTZEA


2. ARDATZA / 3. PROGRAMA - Emakumeen autonomia ekonomikorantz

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun efektiboa sustatzea ez da soilik onartzea eskubideak denentzat berberak direla; horretaz gain, botere publikoek jardun egin behar dute, besteak beste berdintasun formalaren eta desberdintasun materialaren artean praktikan dagoen tartea murrizteko. Izan ere askorik ez du balio eskubideak unibertsalak izateak, generoaren arabera bereizten gaituzten eta desberdintasunezko baldintza eta posizioetan jartzen gaituzten rol eta igurikimen sozialek baldintzatzen dituztenean eskubide horiek baliatzeko aukerak.

Lan merkatuak argi eta garbi islatzen du desberdintasun hori; horrenbestez kontuan hartu behar da, ezinbestean, enpleguaren arloko politika publikoak diseinatzeko eta horien eragina ebaluatzeko unean. Horixe xedatzen du, bestenaz ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 36. artikuluan euskal administrazio publikoei ezartzen baitie emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna erreala eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituztela, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan, prestakuntza, sustapen eta ordainketa baldintzetan.

Agindu horri modu eraginkorrean erantzuteko, enplegu bilatzeari eta ekintzailtzari laguntzeko eskualdeko zerbitzuek jakin behar dute lan merkatuan dauden genero joerak antzematen eta analizatzen, eta horien arrazoiak ezagutu behar dituzte, emakume kolektibo desfaboratuenei arreta berezia jarritz, hain zuzen diseinatzeko eta inplementatzeko dituzten politika eta programek emakumeen behar berehalakoei (behar praktikoak) eta dituzten epe ertain-luzeko intereseei ere (posizionamendu estrategikoa) erantzun diezaieten.

Illo horretatik, programak 2 helburu estrategiko dauzka, honakoak:



+ 2. ARDATZA / 3. PROGRAMA - Emakumeen autonomia ekonomikorantz

43

3.1.
HEL.
EST.

- Eskualdeko emakumeek inoren konturako enplegua lortzeko baldintzak hobetzea Uggasaren lan zerbitzuen bidez.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
3.1.1. Uggasaren Laneko Orientaziorako zerbitzuen arreta sendotzea, enplegua eskatzen duten emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak kontuan hartuta.	3.1.1.1. Uggasaren Lan Orientazioko zerbitzuek emakumeen eta gizonen gainean duten eraginaren analisia egitea, mekanismo formalak eta informazioa sistematizatzeko tresnak ezarriz.	Uggasaren Lan Orientazioko Zerbitzua	+
	3.1.1.2. Egindako analisitik ondorioztatutako ekintza zehatzak definitzea eta adostea, Uggasaren Lan Orientazioko Zerbitzuek hobetu erantzun diezaieten eskualdeko emakumeen behar praktiko eta interes estrategikoei, emakume kolektibo desfaboratuenei arreta berezia emanez.	Uggasaren Lan Orientazioko Zerbitzua	++
3.1.2. Genero joerak saihestea eta lan baldintza duinak sustatzea Uggasaren Bitartekaritza Zerbitzuaren esparruan.	3.1.2.1. Uggasaren Bitartekaritza programaren esparruan hautagaitzak apartatzeko jarraitzen diren prozedura eta irizpideak berrikustea, izan daitezkeen genero joerak identifikatzearren.	Uggasaren Lan Bitartekaritzako Zerbitzua	+
	3.1.2.2. Hautagaitzak apartatzeko prozeduretan irizpide eta mekanismo formalak definitzea eta adostea, izan daitezkeen genero joerak deuseztatze eta emakumeek enplegura ekitatezko baldintzetan sartzeko aukera izatea bermatzeko.	Uggasaren Lan Bitartekaritzako Zerbitzua	++
3.1.3. Genero Ikuspegiaren sarrera indartzea Uggasaren HAZI programan.	3.1.3.1. Uggasak langabezia egoeran dauden gazteei laguntzeko bultzatutako HAZILAN eta TXERTATU programetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak jasotzea.	Uggasaren Lan Orientazioko Zerbitzua	+
	3.1.3.2. Uggasak langabezia egoeran dauden gazteei laguntzeko bultzatutako HAZILAN eta TXERTATU programetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jasotako helburuen inplementazioaren gaineko jarraipen espezifikoa egitea.	Uggasaren Lan Orientazioko Zerbitzua	++++



2. ARDATZA / 3. PROGRAMA - Emakumeen autonomia ekonomikorantz

44

3.2.
HEL.
EST.

- Eskualdeko emakumeen artean norberaren konturako enplegua bultzatzea, Uggasaren ekintzailatza programen eta lehen sektorerantzuzendutako programen bidez.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19			
3.2.1. Emakumeek bere enpresa-proiektuak abian jartzeko unean topatzen dituzten hesiak kentzen laguntzea.	3.2.1.2. Mekanismo formalak eta informazioa sistematizatzeko tresnak ezartzea, Uggasaren Ekintzailatza Programaren barnean eskaintzen diren zerbitzuek emakumeen eta gizonen gainean duten inpaktu desberdinaren analisia egiteko.	Sortzen Uggasa Ekintzailatza programa	++			
	3.2.1.3. Esparru honetako esku-hartzea orientatzen laguntzen duten ekintzak adostea eta definitzea, emakumeen behar praktikoko eta interes estrategiko aurrez identifikatuei erantzutearren.	Sortzen Uggasa Ekintzailatza programa	+			
3.2.2. Lehen sektorean lan egiten duten emakumeek bitartekoetarako duten aukera eta horien gaineko kontrola sendotzea.	3.2.2.1. Urola Garaiko lau udaletatik gidatzen ari den "Landa ingurunearen diagnostikoa" azterketan genero ikuspegia sartzea bultzatzea.	Bertatik Bertara Uggasa programa	++			
	3.2.2.2. Aurrez egindako lanaren arabera, lehen sektoreko emakumei zuzendutako neurriak definitzea eta inplementatzea, egindako azterketetan identifikatzen diren genero desberdintasun eta bazterketa egoerei erantzutearren.	Bertatik Bertara Uggasa programa	++			



2. ARDATZA / 3. PROGRAMA - Emakumeen autonomia ekonomikorantz

45

3.1.
HEL.
EST.

- Eskualdeko emakumeek inoren konturako enplegua lortzeko baldintzak hobetzea Uggasaren lan zerbitzuen bidez.



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 3.1.1.

Uggasaren Laneko Orientaziorako zerbitzuen arreta sendotzea, enplegua eskatzen duten emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak kontuan hartuta.



- ☐ Uggasaren Lan Orientazioko Zerbitzuetarako ezarritako informazioa sistematizatzeko mekanismo edo tresna formalen kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Uggasaren Lan Orientazioko Zerbitzuek eskualdeko emakumeen behar praktiko eta interes estrategikoei -eta emakume kolektibo desfaboratuenei arreta berezia emanez- hobetu erantzun diezaieten diseinatutako ekintza zehatzen kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

HELBURU ESTRAT. 3.1.2.

Genero joerak saihestea eta lan baldintza duinak sustatzea Uggasaren Bitartekaritza Zerbitzuaren esparruan.



- ☐ Hautagaitzak apartatzeko prozeduren artean, izan daitezkeen genero joerak saihesteko berrikusi den prozedura kopurua *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Hautagaitzak apartatzeko prozeduretan izan daitezkeen genero joerak saihesteko sartutako irizpide kopuru eta motak *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

HELBURU ESTRAT. 3.1.3.

Genero ikuspegiaren sarrera indartzea Uggasaren HAZI programan.



- ☐ Uggasak langabezia egoeran dauden gazteei laguntzeko bultzatutako HAZILAN eta TXERTATU programetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko sartutako helburu kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ HAZILAN eta TXERTATU programetan berdintasun helburuen inplementazioa monitoreatzeko diseinatutako mekanismo kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*



2. ARDATZA / 3. PROGRAMA - Emakumeen autonomia ekonomikorantz

46

H.M.
EST.
3.2.

- Eskualdeko emakumeen artean norberaren konturako enplegua bultzatzea, Uggasaren ekintzailtza programen eta lehen sektorerako zuzendutako programen bidez.



PROZESU ETA JARRAIPIEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 3.2.1.

Emakumeek bere enpresa-proiektuak abian jartzeko unean topatzen dituzten hesiak kentzen laguntzea.



- ☐ Uggasaren Ekintzailtza programaren genero analisirako ezarritako informazioa sistematizatzeko mekanismo edo tresna formalen kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Uggasaren Ekintzailtza programan aurrez identifikatutako emakumeen behar praktiko eta interes estrategikoei erantzutearren definitutako ekintza kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

HELBURU ESTRAT. 3.2.2.

Lehen sektorean lan egiten duten emakumeek bitartekoetarako duten aukera eta horien gaineko kontrola sendotzea.



- ☐ Urola Garaiko lau udaletatik gidatzen ari den "Landa ingurunearen diagnostikoa" azterketan genero ikuspegia sartzeko diseinatutako neurri kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Egindako azterketetan identifikatutako genero desberdintasun eta bazterketa egoerei erantzutearren lehen sektoreko emakumeei zuzendutako neurri kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*




2. ARDATZA / 4. PROGRAMA - Bizileku propioa: Emakumeen Etxea

47

Urola Garaiko Ahaluntze Eskola, 2012an martxan jarri zenetik, Eskualdeko Berdintasun Arloak eskualdeko emakumeen ahaluntze indibidual eta kolektiboari dagokionez zertzen duen esku-hartzea egituratzen duen proiektu estrategikoa da. Hasieratik beretik gogoeta eta eztabaidarako talde lana sustatu du emakumeen artean, partaidetza eta bizipenezko metodologiaren bidez, eta emakume horiek bere burua eta inguratzen dituen mundua ulerkuntza-esparru feministetatik ulertzeko bidea aurkitu dute Eskolak eskainitako jardueretan. Ahaluntze talde egonkor batzuk finkatu direlarik, horrek aukera ematen digu zaugarritasun eta bazterketa anizkoitzeko egoeretan bizi diren emakumeei protagonismo handiagoa emateko. Virginia Woolf idazlearen aholkuei jarraituz, horrek 30eko urteetan jada gomendatzen baitzuen emakumeek "gela propio bat edukitzea" idazteko, Berdintasunerako II. Eskualde Planak beste pauso bat egitea planteatzen du, eta Emakumeen Etxea sortzeko bidean aurrera egitea, mekanismoak artikulaturik betiere, emakumeak, antolatutako zein antolatu gabeak, Etxearen kudeaketaren eta garapenaren partaide izan daitezen.

Proiektuak, esaterako Ahaluntze Eskola eta etorkizunean izan daitekeen Emakumeen Etxea, ez dira berez helburua, baizik eta Urola Garaiko emakumeek beren herrietako elkarte-bizitzan eta partaidetzazko espazioetan eragiteko eta, horrenbestez, beren bizitzak eta, hedapenez, Urola Garaiko eskualdeko biztanleriarena oro har hobetzeko duten ahalmena sendotzeko bitartekoak. Zehazki, urteko programazioak udalerrietatik egituratutako proiektu edo lan prozesuekin lotzea da kontua, eta solaskidetzarako bideak finkatzea, horrela Eskolako ikasleek zein eskualdean berdintasunaren alde ari diren elkarte eta talde feministek eta emakume taldeek aukera izango baitute eskualdeko berdintasun politiketan duten eragin soziala biderkatzeko.

Programa honek, beraz, 2 helburu estrategiko dauzka, honakoak:





2. ARDATZA / 4. PROGRAMA - Bizileku propioa: Emakumeen Etxea

48

4.1.
HEL.
EST.

- Baldintzak sortzea eskualdeko emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
4.1.1. Eskualdeko Ahalduntze Eskolaren proiektu estrategikoa finkatzea.	4.1.1.1. Ahalduntze Eskolaren urteko prestakuntza-eskaintza diseinatzeko eta inplementatzeko segitzea, ikaste eta ahalduntze prozesu banakakoak eta kolektiboak sustatzen laguntzeko eta era askotako emakumeen beharrak eta interesak asetzeko.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	4.1.1.2. Jarraitasuna eta sendotasuna ematea Eskualdeko emakumeentzako ahalduntze talde iraunkorren bidez egindako lanari.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	4.1.1.3. Sendotzea aldizkako topaketen antolaketa, zenbait taldetako emakumeen baterako partaidetza sustatzeko, hain zuzen horrela sendotzearen emakumeen arteko elkartrukea eta ahalduntze kolektiborako aukerak.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+++
	4.1.1.4. Eskolak antolatzen dituen jardueren zabalkundea sendotzea, emakume gehienek ezagut ditzaten ahalbidetzeko eta, horrela, jarduera horietara iritsi eta parte hartu ahal izan dezaten bultzatzeko.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	4.1.1.5. Koordinazio Batzorde bat sortzea, Eskolako emakumeen zein elkarte eta entitateetako partaidetza, Eskolarekiko eta Mankomunitateko Berdintasun Arloarekiko lotura zuzen batez.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+
4.1.2. Emakumeen Etxearen sorrerarentz aurre egitea, ahalduntzeko espaziotzat.	4.1.2.1. Etorikizuneko Emakumeen Etxea kofinantatzeko proiektu bat aurkeztea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+
	4.1.2.2. Idazkaritza tekniko bat kontratatzea trantsizioko laneko plan bat prestatzeko prozesua diseinatu eta laguntzeko; plan horren iraupena hiru urtekoa izango da gutxienez, eta programazio eta zerbitzuen, etxerako eredu eta kudeaketaren, kokapenaren, bitarteko eta iraunkortasun ekonomikoaren, komunikazio planaren eta kronogramaren inguruan politikariek eta teknikariek zein herritarrek lortutako akordioaren emaitza izango da.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	4.1.2.3. Adosten den etxe eredurako lokal egokia edukitzea Zumarraga-Urretxun, eta Etxea deszentralizatzea Legazpin ere espazio propio bat eskuratuta.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+
	4.1.2.4. Etxea behar bezala eraman eta kudeatzeko pertsonala kontratatzea.	Berdintasun Arloa	+



2. ARDATZA / 4. PROGRAMA - Bizileku propioa: Emakumeen Etxea

49

4.2.
HEL.
EST.

- Emakumeek eskualdean duten eraginaren eta partaidetza soziopolitikoaren maila handitzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA			
			2016	17	18	19
4.2.1. Ahalduzte Eskolak eskualdean duen kanpo eragina sendotzea, duen programazioa udalerrietatik egituratutako proiektu edo lan prozesuekin eta eskualde mailako berdintasun politikekin lotuz.	4.2.1.1. Ahalduzte Eskolatik prestakuntza-ekintza ildo partaidetzazkoak bultzatzen segitzea, eskualdeko emakumeek berdintasun politiketan parte hartzea sustatzearen.	Mankomunitatek o Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	4.2.1.2. Errebindikazio estrategia feminista duten eskualdeko emakumeen elkarte eta taldeen, Ahalduzte Eskolako emakumeen eta Mankomunitateko Berdintasun Arloaren arteko solaskidetza bideak sendotzea, arreta berezia jarritz aipatu lehenekin artikulatzearen informazio, kontraste eta proposamen biltetarako prozesuak, II. Planaren esparruan urteko programazioak prestatzera begira.	Mankomunitatek o Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	4.2.1.3. Urretxu eta Zumarragako Harrera Eskolan parte hartzen duten emakume atzeritarrak Ahalduzte Eskolarekin harremanetan jartzea bultzatzen segitzea, emakume horiek prestakuntza-jardueretan eta lantalde edo batzordeetan sartzea sustatzearen.	Udaletako OGZ arloak	+	+	+	+
			+	+	+	+
4.2.2. Emakumeen aitzindaritzaren eta partaidetza soziopolitikoaren maila handitzea eskualdean.	4.2.2.1. Bultzatzea emakume askori kargu publikoetara iristea eta horietan aritzea zailtzen dieten oztopoak antzeman eta neutralizatzearen Emakunde eta EUDELetik bultzatutako elkartruke espazio edota laguntza-sareetan emakume hautetsiek parte hartzea.	Mankomunitatek o Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	4.2.2.3. Berdintasunaren alde eta ikuspegi feministetatik lan egiten duten emakumeen elkarte eta taldeei laguntzea eta aholkularitza eskaintzea, Eskualdeko emakumeentzako erreferentzia bihurtu ahal izan daitezen.	Mankomunitatek o Berdintasun Arloa	+	+	+	+

4.1.
HEL.
EST.

- Baldintzak sortzea eskualdeko emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako.



PROZESU ETA JARRAIPIEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 4.1.1.

Eskualdeko Ahalduntze Eskolaren proiektu estrategikoa finkatzea.

- ☐ Urola Garaiko Ahalduntze Eskolatik eskainitako prestakuntza orduen kop. *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua)*
- ☐ Eskolako prestakuntza-ikastaroetan eta ahalduntze taldeetan parte hartzen duen ikasle kopurua eta horien profila. *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua)*
- ☐ Ahalduntze Eskolaren prestakuntza-eskaintzaren kalitateaz ikasleek duten asebetetze maila. *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua)*
- ☐ Ahalduntze Eskolaren Koordinazio Batzordean parte hartzen duen emakume kopurua eta horien profila *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua)*

HELBURU ESTRAT. 4.1.2.

Emakumeen Etxearen sorrerarantz aurre egitea, ahalduntzeko espaziotzat.

- ☐ Eskualdean Emakumeen Etxea sortzeko prozesua garatzeko lortutako kofinantzaketa portzentajea. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Proiektua bultzatzeko eskualdeko berdintasuneko aurrekontuan, idazkaritza teknikoa eta Etxea eramateko eta kudeatzeko pertsonal espezifiko kontratatze portzentajea. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Emakumeen Etxearen kudeaketa eta garapenean parte hartzen duen emakume kopurua, antolatu zein antolatu gabea, eta horien profila. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

4.2.
HEL.
EST.

- Emakumeek eskualdean duten eraginaren eta partaidetza soziopolitikoaren maila handitzea.

HELBURU ESTRAT. 4.2.1.

Ahalduntze Eskolak eskualdean duen kanpo eragina sendotzea, duen programazioa udalerrietatik egituratutako proiektu edo lan prozesuekin lotuz.

HELBURU ESTRAT. 4.2.2.

Emakumeen aitzindaritzaren eta partaidetza soziopolitikoaren maila handitzea eskualdean.

**PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK**

- ☐ Ahalduntze Eskolaren esparruan definitutako prestakuntza-ekintza lerroetan parte hartzen duen emakume kopuru eta profila. *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua)*
- ☐ Udal Harrera Eskoletan parte hartzen duen eta eskualdeko Eskolako prestakuntza-espazio edota ahalduntze taldeetara hurbiltzen den atzerriko emakume kopuru eta profilak. *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua).*
- ☐ Emakume askori kargu publikoetara iristea eta horietan aritzea zailtzen dieten oztopoak antzeman eta neutralizatzearen Emakunde eta EUDELetik bultzatutako elkartruke espazio edota laguntza-sareetan parte hartzen duen emakume hautetsien kopurua. *(Iturria: Emakunde edota EUDELen asistentzia zerrendak)*
- ☐ Eskualdean berdintasunaren alde eta ikuspegi feministetatik lan egiten duen emakumeen elkarte edo emakume talde kopurua eta egindako kontsulta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

5. PROGRAMA:

FAMILIA-
ESPARRUKO
ZAINTZAK

6. PROGRAMA:


LAN
ESPARRUKO
ZAINTZAK

+ 3. ARDATZA /
ERANTZUKIZUNEZKO
ANTOLAKETA SOZIALA

Programa honen helburua egungo gizarte antolaketaren zutabeetako batean, familia-inguruneko zaintzan, esku-hartzea da, bai pertsona zainduen bai gehien-gehienak emakumezkoak diren zaintzaileen beharrei erantzunez.

Esku-hartzearen premiazkotasuna zaintza-lanak gaur egun ikusezin izaten segitzeari dago lotuta; lan akigarria da, eta sozialki zein ekonomikoki gutxietsia, lan hori bada ere gauza guztiek funtzionatzea dakarkiguna. Batez ere emakumeak dira, oraindik ere, eta ahal dutenean, beren lan egoera eta bizitzako nahiak familian diren zaintza premietara egokitzen dituztenak, eta horrek mendekotasun ekonomiko eta pobrezia handiagoko egoera batean jartzen ditu, bai orainean bertan bai etorkizunera begira. Etxe barruan hartzen duten pisu neurrigabea ez da arintzen ari: Zerbitzu publikoek familien behar errealetatik parte txiki bat bakarrik hartzen dute bere gain, eta oraindik oso defizitarioa da gizonezkoak etxeko lanetan eta zaintza-lanetan sartzeko prozesua, batez ere zaintza jarraitu eta fisikoki, emozionalki eta sozialki nekagarriko egoerak direnean.

5. programak, beraz, 2 helburu estrategiko dauzka, honakoak:





3. ARDATZA / 5. PROGRAMA - Familia-esparruko zaintzak

54

5.1.
HEL.
EST.

- Etxeko zaintzan aritzeko modu duinago eta ekitatiboago bat lortzea, kontzientziazte soziala eta zaintzaileen ahalduntzea sustatuta.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
5.1.1. Zaintzaileek familia-esparruan egiten duten lan ordaindu gabea balioestea, erantzunkidetasun sozial handiagoa sustatzea bilatuta.	5.1.1.1. Emakumeentzako Eskualdeko Ahalduntze Eskolaren esparruan zainketekin lotutako jarduera-eskaintza zabalaren antolaketa sendotzea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++++
	5.1.1.2. Zaintza eta erantzunkidetasun gaiak sartzeara edo horiei ekiteko ahaleginak indartzea gazteei eta biztanleriaro har zuzendutako udal eta eskualde mailako jardueren programazioan, belaunaldien arteko elkartasuna piztea bilatuz horretan.	Udaletako Gazteria eta Kultura arloak	+++
	5.1.1.3. Autonomia pertsonala hobetzeko eta komunitate eta auzo mailan erantzunkidetasuna sustatzeko gizarte partaidetzako ekimenak artikulatzea, eskualdeko udalek sustatutako Euskadi Lagunkoia Programarekiko elkarlanean.	Udaletako Oinarrizko gizarte zerbitzuak	++
	5.1.1.4. Erantzunkidetasunari buruzko edukiak indartzea Eguneko Zentroetako eta Etxeko Laguntza Zerbitzuko erabiltzaileen familiei zuzendutako jardueretan, zaintza-lanaren banaketa ekitatiboagoa sustatzeko genero artean eta belaunaldi artean.	Udaletako Oinarrizko gizarte zerbitzuak	+++ ++++
5.1.2. Familiako zaintzaileen osasun fisiko eta mentala hobetzen laguntzea, ahalduntze handiago baterako baldintzak sortuz.	5.1.2.1. Familiarentzako atsedeen programak, arreta psikologikorako programak, prestakuntzakoak eta elkarri laguntzekoak (esate baterako Ahalduntze Eskolako zaintzaile taldea), epe laburrerakoak zein luzerakoak, erabiltzea bultzatzen segitzea eskualdeko emakumezko zaintzaileen artean.	Udaletako Oinarrizko gizarte zerbitzuak	+
	5.1.2.2. Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak, bere ardurapean mendekotasuna duten pertsonak dauzkatenean, zaintzaileei laguntzeko programetara eta eskualdeko Ahalduntze Eskolako zaintzaile taldera deribatzea bultzatzea, jarraibide komunak ezarri horretarako.	Udaletako Oinarrizko gizarte zerbitzuak	



3. ARDATZA / 5. PROGRAMA - Familia-esparruko zaintzak

55

5.2.
HEL.
EST.

- Genero ikuspegiaren integrazioa hobetzea bai familia-zaintzaileei zuzendutako zerbitzuetan bai bizimodu independentea sustatzeko programetan, erabiltzaile zuzenekiko dialogoa sustatzea bilatuz.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA			
			2016	17	18	19
5.2.1. Egun dauden zerbitzuen genero analisia bultzatzea, bazterketa bikoitzeko arriskuak identifikatzea eta kentzea bilatuz	5.2.1.1. Datuak jasotzeko txantiloia definitzea eta bi urtean behin genero analisia egitea prestazio ekonomikoen, autonomia pertsonala sustatzera zuzendutako zerbitzu eta programen eta zaintzaileei zuzendutako erabilerari buruz, horiek eskualde mailan duten bilakaera ezagutu eta izan daitezkeen genero joerak antzemateko.	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak		+		+
	5.2.1.2. Bi urtean behin lan mintegi bat antolatzea eskualdeko teknikariek eta politikariek, egindako genero analisia aditzera emateko eta antzemandako genero joerak zuzentzeko neurri posibleak definitzeko.	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak		+		+
	5.2.1.3. Laguntza psikologikoko bitartekoek eta zaintzaileei eta zainduei laguntzeko programetatik dinamizatutako autolaguntzako taldeek bere edukietan genero ikuspegia egoki txertatzea berma dezaten bultzatzea (esate baterako, familia-ingurunezko zaintzak negoziatzea hobetzeko edukiak sartzea, gizonezko zaintzaileek beste gizonezko batzuen aurrean, eta oro har gizartearen aurrean, duten erreferentzialtasuna balioetsi eta bultzatzea, etab.).	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak			+++	
5.2.2. Dialogo eta gizarte partaidetzarako bideak indartzea udal edo eskualde mailako arloen eta zerbitzu publikoak erabiltzen dituzten pertsonen artean.	5.2.2.1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta eskualdeko Ahaldundze Eskolaren ahaldundze taldean eta beste jarduera batzuetan parte hartzen duten emakumezko familia-zaintzaileen artean informazioa trukatzeko urteko saioa dinamizatzea, beharren eta eskaintzen diren zerbitzu publikoen gainerako genero analisia sakontzearen.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+

5.1.
HEL.
EST.

- Etxeko zaintzan aritzeko modu duinago eta ekitatiboago bat lortzea, kontzientziazte soziala eta zaintzaileen ahalduntzea sustatuta.

HELBURU ESTRAT. 5.1.1.

Zaintzaileek familia-esparruan egiten duten lan ordaindu gabea balioestea, erantzunkidetasun sozial handiagoa sustatzea bilatuta.

HELBURU ESTRAT. 5.1.2.

Familiako zaintzaileen osasun fisiko eta mentala hobetzen laguntzea, ahalduntze handiago baterako baldintzak sortuz.

**PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK**

- ☐ Emakumeentzako Eskualdeko Ahalduntze Eskolaren esparruan zainketekin lotutako jarduera kopuru eta motak. *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua)*
 - ☐ Emakumeentzako Eskualdeko Ahalduntze Eskolaren esparruan zainketekin lotutako jardueretara doan ikasle kopurua. *(Iturria: Ahalduntze Eskola sistematizatzeko proiektua)*
 - ☐ Zaintzari eta erantzunkidetasunari lotutako gaiak belaunaldi arteko elkartasunezko ikuspegitik lantzen diren jardueretan parte hartzen duen gizonezko eta emakumezko kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
 - ☐ Etxeko Laguntza Zerbitzuaren edo Eguneko Zentroen erabiltzaileen senideei eskainitako jardueretan, zaintzaren inguruko genero eta belaunaldi arteko banaketaren gaia jorratzen denetan, parte hartzen duen gizonezko eta emakumezko kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
-
- ☐ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen diren arreta psikologiko eta elkarrekiko laguntzako programetara jotzen duten familiako zaintzaileen kopuruak izandako gorakada (%) *(Iturria: 2017 eta 2019an programatutako II. Planeko ebaluazioen esparruan egindako kalkulua)*
 - ☐ Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileetatik, bere ardurapean mendekotasuna duten pertsonak dauzkatenetatik, eskualdeko Ahalduntze Eskolaren programetara eta zaintzaile taldera deribatutako kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

5.2.
HEL.
EST.

- Genero ikuspegiaren integrazioa hobetzea bai familia-zaintzaileei zuzendutako zerbitzuetan bai bizimodu independentea sustatzeko programetan, erabiltzaile zuzenekiko dialogoa sustatzea bilatuz.

HELBURU ESTRAT. 5.2.1.

Egun dauden zerbitzuen genero analisia bultzatzea, bazterketa bikoitzeko arriskuak identifikatzea eta kentzea bilatuz.

HELBURU ESTRAT. 5.2.2.

Dialogo eta gizarte partaidetzarako bideak indartzea udal edo eskualde mailako arloen eta zerbitzu publikoak erabiltzen dituzten pertsonen artean.

**PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK**

- ☐ Prestazio ekonomikoen, autonomia pertsonala sustatzera zuzendutako zerbitzu eta programen eta zaintzaileei zuzendutako erabilerari buruzko bi urtean behingo genero analisien kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta eskualdeko Ahalduntze Eskolako ahalduntze taldean parte hartzen duten familia-zaintzaileen artean informazioa trukatzeko urteko saioan izandako pertsona kopurua eta horren profila. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*



3. ARDATZA / 6. PROGRAMA - Lan esparruko zaintzak

58

Programa honetan zaintzaren egoerari heldu nahi zaio, baina produktibo esaten zaion esparruan mugitzen direnen errealitatetik. Horien artean zaintza behar horiek enpleguarekin uztartzeko laguntza behar duten langileak daude, zainketa-zerbitzuak eskaintzen dituzten langileak -emakumezkoak nagusiki-, eta enpresetatik eta erakunde publikoetatik funtsezko betekizuna dutenak erantzunkidetasunezko kontziliazioa azkenean "arazo indibiduala" izatetik benetan erantzukizun soziala izatera igaro dadin. Ildo horretatik, Berdintasuneko II. Eskualde Planak ahalegin berezia egin nahi du enpresek eta administrazio publikoek berek, enplegatzaile eta lan merkatuarentzako erreferentzia baitira, pertsonen zaintzaren arloko erantzunkidetasun handiagoa har dezaten lortzeko, hain zuzen oro har pertsonen bizitza eta, bereziki, emakumeen bizitza hobetzeko aldaketa sozialak ahalbide ditzaten.

Bestetik, toki eta eskualde mailako administrazioei dagokien eskumen esparruari jarraikiz zaintza profesionalaren arloko esku-hartzeari emandako lehentasuna zaintzaren sektore zeharo feminizatuan, bereziki etxeko lanarenean, enplegatutako pertsonen egoerari dago lotuta: lansariak txikiak dira, lan prekarietatea handia da, ez daude babestuta bizitzako arriskuen aurrean (langabeziarako eskubiderik ez, esate baterako), eta ezkutuko lanaren bolumen handiak are zailago egiten du lan baldintza duinak bermatu ahal izatea, are zailago emakume atzerritarren kasuan, horietako asko eta asko hain zuzen ere berek dauzkaten zaintza-ardurek eragindako migrazio proiektu batez iristen baitira gure eskualdera.

Programa honek, beraz, 2 helburu estrategiko dauzka, honakoak:

HELB. ESTRATEGIKOA

6.1

- Sektore publikoaren eta enpresa sektorearen erantzunkidetasuna areagotzea langileen beharrei egokituagoko zainketen ekonomiaren kudeaketan.

HELB. ESTRATEGIKOA

6.2.

- Emakumezko zainzaile profesionalen autonomia ekonomikoa eta lan baldintzak hobetzea



3. ARDATZA / 6. PROGRAMA - Lan esparruko zaintzak

59

6.1.
HEL.
EST.

- Sektore publikoaren eta enpresa sektorearen erantzunkidetasuna areagotzea langileen beharrei egokituagoko zainketen ekonomiaren kudeaketan.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
6.1.1. Erantzunkidetasuna sustatzea toki administrazioen eta beren ardurapean mendekotasuna duten pertsonak dauzkaten teknikari edo politikarien artean.	6.1.1.1. Udal langileei, mankomunitatearen langileei eta Uggasaren langileei lan ordaindua zaintza-lan ordaindu gabearekin uztartzea ahalbidetzen dieten kontziliazio neurrien erabilera aztertzea.	Uggasako, Mankomunitateko eta udaletako pertsonaleko arduradunak	+
	6.1.1.2. Egindako analisiaren arabera egoki diren neurri zuzentzaileak definitzea, kontziliazio neurrietara jotzen duen pertsona kopurua handitzea ahalbidetzeko, eta arreta berezia jarritz zaintza-lana gizonen eta emakumeen artean modu ekitatiboagoan banatzea sustatzeko eginkizunean.	Mankomunitateko, Uggasako eta udaletako Berdintasun Arloa	+
	6.1.1.3. Abian jartzea ardurapean dituzten mendekoenganako zaintza-erantzukizunetan aritzea ahalbidetuko dieten neurriak.	Mankomunitatea Uggas Udalak	++
6.1.2. Pertsonen zaintzarekiko erantzunkidetasuna sustatzea eskualdeko enpresa-ehunean.	6.1.2.1. Genero ikuspegia jasotzen duen gizarte erantzunkidetasunezko tresna bat diseinatzea proiektu pilotuaren barnean: <i>"Urola Garaiko eta Buruntzaldeko eskualdeetako enpresentzako gizarte erantzunkidetasunezko tresna"</i>	Berdintasun Arloa Uggasaren enpresa zerbitzua	+
	6.1.2.2. Jarraipen espezifiko egitea <i>"Urola Garaiko eta Buruntzaldeko eskualdeetako enpresentzako gizarte erantzunkidetasunezko tresna"</i> proiektuan genero ikuspegia txertatzearen inguruan.	Uggasaren enpresa zerbitzua	+
	6.1.2.3. Praktika egokien trukea antolatzea lana eta familia uztartzearen langileekiko erantzunkidetasun maila areagotzeko neurriak hartu dituzten enpresen artean.	Uggasaren enpresa zerbitzua	+
	6.1.2.4. Gizarte erantzunkidetasunezko proiektuan jarraitutako metodologia aplikatzeko esparrua Urola Garaia eskualdeko zenbait enpresetara zabaltzea.	Uggasaren enpresa zerbitzua	++



3. ARDATZA / 6. PROGRAMA - Lan esparruko zaintzak

60

6.2.
HEL.
EST.

- Emakumezko zaintzaile profesionalen autonomia ekonomikoa eta lan baldintzak hobetzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA			
			2016	17	18	19
6.2.1. Eskualdean zaintzaren arloko zerbitzuen emakidadun diren enpresek kontratatutako pertsonen prestakuntza eta lan baldintzetan eragitea.	6.2.1.1. Mendekotasunaren arretarako zerbitzu kontratu publikoetan klausula bat bultzatzea, langileei eskaintako prestakuntza genero ikuspegia jasotzen duten moduluak sar ditzaten.	Mankomunitatek o Berdintasun Arloa OGZ		+	+	+
	6.2.1.2. Emakumezko zaintzaile profesionalen prestakuntza eskaintzen dieten elkarte, sindikatu, enpresa edota fundazio pribatuekiko bitartekaritza aritzea, beren eskaintzaren diseinuan genero ikuspegia jaso dezaten.	Mankomunitatek o Berdintasun Arloa OGZ		+	+	+
6.2.2. Banakako zaintzaile profesionalentzako lan baldintza duinagoak sortzen laguntzea, emakume migratzaileen egoerari arreta berezia jarritz.	6.2.2.1. Aztertzea zein den hurbileko garapen agentzietan enplegatzaileei zein enplegatuei aditzera ematen zaien sektore feminizatu prekarizatuenei (batez ere zaintzarekin eta etxeko lanarekin lotuari) aplika dakizkiekeen lan baldintza duinen esparrua.	Uggasaren Bitartekaritza Zerbitzua		+		
	6.2.2.2. Garapen-en bidez lan prozesu bat bultzatzea, horretatik abiatutako irizpideak biltzearen, eta Bitartekaritza zerbitzuen prozedura komuna adostearren sektore feminizatu prekarizatuenei kontratazioaren inguruan (batez ere zaintzarekin eta etxeko lanarekin lotuaren inguruan).	Uggasaren Bitartekaritza Zerbitzua		+	+	
	6.2.2.3. Zaintzaile profesionalen eskubideen zabalkunde kanpainak laguntzea edo bultzatzea, arreta berezia jarritz emakume migratzaileen egoeraren gainean.	Uggasaren Bitartekaritza Zerbitzua			+	+
	6.2.2.4. Emakumezko zaintzaile profesionalen eta ez profesionalen arteko topaketak ahalbidetzea, bizipenak, zaintza-lanaren genero analisia eta aurkitutako zailtasunak gainditzeko estrategiak partekatzearen.	Mankomunitatek o Berdintasun Arloa		+	+	+

6.1.
HEL.
EST.

- Sektore publikoaren eta enpresa sektorearen erantzunkidetasuna areagotzea langileen beharrei egokituagoko zainketen ekonomiaren kudeaketan.

HELBURU ESTRAT. 6.1.1.

Erantzunkidetasuna sustatzea toki administrazioen eta beren ardurapean mendekotasuna duten pertsonak dauzkaten teknikari edo politikarien artean.

HELBURU ESTRAT. 6.1.2.

Pertsonen zaintzarekiko erantzunkidetasuna sustatzea eskualdeko enpresa-ehunean.

**PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK**

- ☐ Udaletako, Mankomunitateko eta Uggasako langileentzat kontziliazio edo bateratzearen arloan definitutako neurri kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Udal, Mankomunitate eta Ugghasa mailan dauden kontziliazio edo bateratze neurrietara jotzen duen emakume eta gizon kopurua. *(Iturria: 2017 eta 2019an programatutako II. Planeko ebaluazioen esparruan egindako kalkulua)*
- ☐ "Urola Garaiko eta Buruntzaldeko eskualdeetako enpresentzako gizarte erantzunkidetasunezko tresna" proiektuan genero ikuspegia txertatzearen inguruan hartutako jarraipen neurrien kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Lan-bizitza eta familia bateratzearen esparruan langileekiko erantzunkidetasunaren arloan praktika onen trukaketan parte hartzen duen enpresa kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

6.2.
HEL.
EST.

- Emakumezko zaintzaile profesionalen autonomia ekonomikoa eta lan baldintzak hobetzea



PROZESU ETA JARRAIPIEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 6.2.1.

Eskualdean zaintzaren arloko zerbitzuen emakidadun diren enpresek kontratatutako pertsonen prestakuntza eta lan baldintzetan eragitea.



- ☐ Mendekotasunaren arreta zerbitzuetarako kontratu publikoen artean langileek eskaintako prestakuntza genero ikuspegia jasotzen duten moduluak sartzeko klausula dutenen portzentajea. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Emakumezko zaintzaile profesionalen prestakuntza eskaintzen dieten elkarte, sindikatu, enpresa edota fundazio pribatuaren artean beren eskaintzaren diseinuan genero ikuspegia jaso dezaten kontaktatuen kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Bere prestakuntza-moduluetan genero ikuspegia txertatzeko neurriak gauzatzen dituzten erakunde kontaktatuen portzentajea. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

HELBURU ESTRAT. 6.2.2.

Banakako zaintzaile profesionalentzako lan baldintza duinagoak sortzen laguntzea, emakume migratzaileen egoerari arreta berezia jarritz.



- ☐ Sektorre femenino prekarizatuenetako (bereziki zaintza-lan eta etxeko lanetako) kontratazioaren inguruan bitartekaritza zerbitzuetarako prozedura komuna adosteko prozesuan inplikaturako entitate kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Emakume migratzaileen egoeraren gainean arreta berezia jartzen duten zaintzaile profesionalen eskubideen zabalkunde kanpainen onuradun zuzena den pertsona kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

7. PROGRAMA:

PREBENTZIORAKO:
BELDUR BARIK!

8. PROGRAMA:


DETEKZIO ETA
ARRETARAKO:
KOORDINAZIO
PROTOKOLO
LOKALA

+ 4. ARDATZA / INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZA

Indarkeria matxistarik gabeko horizonte baterantz aurrera egiteko, gogotik ekin behar zaio indarkeriaren prebentziotik indarkeria kasuak antzeman eta horiei arreta emateraino doan kontinuumeko hainbat punturi. Programa honen asmoa esku-hartze goiztiarraren bidea jorratzea da, jakinik gainera EAEn indarkeria matxistako egoerak jasan dituzten emakume biktimen batez besteko adinak beherantz egin duela azken urteotan zehar. Urola Garaian, ikusi dugu ezen 2013an arreta emandako emakumeetatik % 58 26 eta 45 urte bitarteko adin-tartean zegoela, hau da, emakume gazteak ziren, proportzioan beste emakumeak baino adoretsuagoak inolaz ere, jasaten ari ziren indarkeriazko egoeratik irtetearren baliabide publikoen laguntza eskatzeko unean.

Emakunde eta Eudelek Beldur Barik! programa sortu zutenetik Urola Garaia Udal Elkarteak nabarmendu egin da EAE mailan gazteei zuzendutako ekintzen antolaketa definitu eta egituratu duten talde eragileetan izan duen partaidetza aktibo eta jarraituaz. Apustu hori, eskualde mailan, ikasgelan eta gazteentzako zenbait espaziotan esku-hartzeko programa bati eman bultzadaz sendotu da; aldi berean, prebentzio lanean inplikaturako komunitate osoaren -irakasleak, senideak, kaleko hezitzaileak, etab.- jarduerak komuna laguntzen eta koordinatzen ari da.

Egindako lana finkatzen segitzeko, II. Planak ondoren azaltzen diren bi helburu estrategikoak planteatzen ditu:





4. ARDATZA / 7. PROGRAMA - Prebentziorako: BELDUR BARIK!

65

7.1.
HEL.
EST.

- Gazte eta helduen artean indarkeria matxistak dituen arrazoi eta adierazpenen analisi feminista sustatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOA K	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA 2016 17 18 19
7.1.1. Ikasle eta gazteekiko esku-hartzetuz finkatzea indarkeria matxistaren prebentzio integralerako Beldur Barik! programaren esparruan.	7.1.1.1. Indarkeria matxistaren Prebentzio Integraleko Zerbitzuaren esparruan ikastetxeetako ikasleei zuzendutako gelako saioei jarraitasuna ematea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++
	7.1.1.2. Ahalduz espazio bat finkatzea, Urola Garaiko neska gazteei zuzendurik, hileko gaitze saioak eskainiz; horien helburuak gizarte partaidetza sustatzea, feminismoaren inguruko ezagutza areagotzea eta neska horien eta eskualdeko beste neska gazte batzuen arteko loturak eta sareak sendotzea dira.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++
	7.1.1.3. Urteko lehiaketetan eta Beldur Barik topaketetan parte hartzeko interesa duten nerabe eta gazteak modu aktiboan identifikatzen segitzea, eta horiei laguntza eskaintzea beren eguneroko errealitatean indarkeria matxistak dituen adierazpen modu desberdinei buruzko gogoeta-saioen bidez.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++
	7.1.1.4. Mankomunitatearen Biluzik Mundura Hezkuntza Afektibo-Sexualeko Zerbitzua sendotzea, banakako zein taldekako esku-hartzeen osagarritasuna bermatuz.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++
7.1.2. Emakumeen kontrako indarkeriarekiko zero tolerantziaren mezua indartzea biztanleriarengan oro har.	7.1.2.1. Biztanleriari oro har kontzientziatze jarduerak eskaintzea, azaroaren 25erako antolatzen diren urteko kanpainen esparruan.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++
	7.1.2.2. Jarraipena ematea Beldur Barik Gunearen esparruan eta eskualdeko udalerri guztietan festetan indarkeria sexista prebenitzeko garatutako lanari.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++



4. ARDATZA / 7. PROGRAMA - Prebentziorako: BELDUR BARIK!

66

7.2.
HEL.
EST.

- Familekiko eta hezitzaileekiko esku-hartzea finkatzea indarkeria matxistaren prebentzio integralerako Beldur Barik programaren esparruan, erakundeen artean erantzunkidetasun maila sendotzea bilatuz eskualde mailan.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA			
			2016	17	18	19
7.2.1. Hezitzaileei zein familiei adin goiztiarretatik indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko tresnak ematea	7.2.1.1. Hezkuntza ez formalaren esparruan egindako esku-hartzearen baterako diseinuan aurrera egitea, Eskualdeko nerabe eta gazteen artean indarkeria matxista gainditzera bideratutako jarduerak sendotzearen.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+		
		OGZ Gazteria arloak			+	+
	7.2.1.2. Hezikidetzaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruko gogoeta eta prestakuntza espazioak, Eskualdeko ikastetxeetako irakasleei zuzenduak, sendotzen segitzea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	7.2.1.3. Familiei zuzendutako lana sendotzea, batez ere hezikidetzaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruko prestakuntza- eta gaikuntza-saioen eskaintzara joz.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	7.2.1.4. Eskualdeko ikastetxeei aholkularitza ematea hezikidetzaren planak prestatzeko bere prozesuetan, indarkeria matxistaren arloko kontzientziatze estrategiak -irakasleei zein ikasleen familiei zuzenduak- diseinatzeko eta aplikatzeko unean duten erantzunkidetasun maila areagotzearen.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	
7.2.2. Gazte biztanleriaren artean berdintasuna sustatzera eta indarkeria matxista prebenitzera	7.2.2.1. Koordinazio espazioak ezartzea haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekintzak diseinatzeko eta inplementatzeko unean garrantzitsuak diren agenteen artean (ikastetxeak, familiak, kaleko hezitzaileak, etab.).	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	7.2.2.2. Mankomunitateko Berdintasun Arloaren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Tokiko Gazteria Arloen arteko koordinazioa hobetzea -nerabe eta gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko talde teknikoaren bidez-, gazte jendeari zuzendutako programa lokaletan indarkeria matxistaren prebentzioa bultzatzeko, eta Beldur Barik programa eta eskualdeko Topaketaren antolaketa bultzatzeko.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+



4. ARDATZA / 7. PROGRAMA - Prebentziorako: BELDUR BARIK!

67

7.1.
HEL.
EST.

- Gazte eta helduen artean indarkeria matxistak dituen arrazoi eta adierazpenen analisi feminista sustatzea.



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 7.1.1.

Ikasle eta gazteekiko esku-hartze zuzena finkatzea indarkeria matxistaren prebentzio integralerako Beldur Barik! programaren esparruan.

- ☐ Indarkeria matxistaren Prebentzio Zerbitzuak bultzatutako espazioetan, ikastetxeetan zein ikasgelatik kanpoko ahaluntze espazioetan, parte hartzen duten neska eta mutil kopuruak. *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*
- ☐ Beldur Barik!-en urteko lehiaketara eskualdeko gazteek aurkeztutako proiektu kopurua. *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*
- ☐ Mankomunitatearen Biluzik Mundura Hezkuntza Afektibo-Sexualeko Zerbitzuarenerabiltzaile diren mutil eta neska kopuruak, bai banakako bai taldekako esku-hartzekoak *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*

HELBURU ESTRAT. 7.1.2.

Emakumeen kontrako indarkeriarekiko zero tolerantziaren mezua indartzea biztanlerian oro har.

- ☐ Azaroaren 25eko urteko kanpainen esparruan helduentzat antolatutako jarduera kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Azaroaren 25aren esparruan antolatutako jardueren zuzeneko eta zeharkako pertsona onuradunen kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Festetan indarkeria sexista prebenitzeko programan parte hartzen duen toki erakunde kopuru eta mota. *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*



4. ARDATZA / 7. PROGRAMA - Prebentziorako: BELDUR BARIK!

68

7.2.
HEL.
EST.

- Familiekiko eta hezitzaileekiko esku-hartzea finkatzea indarkeria matxistaren prebentzio integralerako Beldur Barik programaren esparruan, erakundeen artean erantzunkidetasun maila sendotzea bilatuz eskualde mailan.



PROZEDURA ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 7.2.1.

Hezitzaileei zein familieiadin goiztiarretatik indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko tresnak ematea



- ☐ Eskualdeko ikastetxeetako irakasleei hezikidetzaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruan eskainitako gogoeta- eta prestakuntza-orduen kopurua. *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*
- ☐ Indarkeria matxistaren Prebentzioko Zerbitzutik eskainitakogogoeta- eta prestakuntza-espazioetan parte hartzen duen irakasle kopurua. *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*
- ☐ Hezikidetzaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruko prestakuntza- eta gaikuntza-saioetan parte hartzen duen aita eta ama kopurua *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*
- ☐ Hezikidetza planak prestatzeko prozesuetan Eskualdeko Berdintasun Arloaren edota indarkeria matxistaren Prebentzioko Zerbitzuaren aholkularitza jasotzen duen eskualdeko ikastetxe kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboan jarraipen fitxak edota enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*

HELBURU ESTRAT. 7.2.2.

Gazte biztanleriaren artean berdintasuna sustatzera eta indarkeria matxista prebenitzera zuzendutako ekimenen eskualde mailako koordinazioa hobetzea.



- ☐ Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekintzak diseinatzeko eta inplementatzeko unean garrantzia duten agenteen artean antolatutako koordinazio espazio kopuru eta motak. *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*
- ☐ Antolatutako koordinazio espazioetara joan den pertsona kopuru eta profila. *(Iturria: Enpresa kontratatuak prestatutako urteko memoria)*

4. ARDATZA / 8. PROGRAMA - Detekzio eta arretarako: Eskualdeko Koordinazio Protokoloa

4/2005 Legeak koordinazio mekanismo espezifikoak ezartzen ditu indarkeria matxistaren kontra borrokatzeko, eta bereziki bultzatzen du erakundearteko lankidetzarako akordioak egitea, hain zuzen "etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak gertatzen diren kasuetan, erantzuna koordinatua eta eraginkorra" izan dadin eta "biktimei laguntza integrala eta kalitatekoa" bermatzeko. Urola Garaiko eskualdearen kasuan, Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen biktima diren emakumeei zuzendutako Arreta Hobetzeko Jarduerarako eta Erakundearteko Koordinaziorako Eskualdeko I. Protokoloa, 2012an onartua, lortzen ari da erakunde sinatzaileen artean gero eta jarduera-jarraibide homogeenagoak (analisi, detekzioa eta arreta) definitzeko bidean aurrera egitea, eta nabarmen ari da hobetzen, gainera, kasu detektatuei eta emakume biktimei arreta zerbitzuetan zehar egiten duten ibilbideari buruzko informazioa biltzeko tresnak. Hala eta guztiz, emakumeei ematen zaien arretak ezinbestekoa du arreta hori behar berme guztiz eskaini ahal izateko baldintza estrukturalak sortzea.

Horregatik, programa honen 2 helburu estrategikoak honakoak dira:





4. ARDATZA / 8. PROGRAMA - Detekzio eta arretarako: Eskualdeko Koordinazio Protokoloa

70

8.1.
HEL.
EST.

- Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen biktimei zuzendutako Arreta Hobetzeko Jarduerarako eta Erakundearteko Koordinaziorako Eskualdeko Protokoloa modu eraginkorrean inplementatzeko beharrezko baldintza estrukturalak optimizatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA			
			2016	17	18	19
8.1.1. Eskualdeko Protokoloko koordinazio egituren egonkortasuna hobetzea.	8.1.1.1. Mahai Teknikoaren barnean entitateak ordezkatzeko dituzten pertsonen egonkortasun handiagoa bermatzeko prozedurak eta baldintzak jasotzea Protokoloan.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+			
	8.1.1.2. Protokoloko Mahai Teknikoan sartzen diren berriek beharrezko informazioa jasotzea bermatzeko prozedurak ezartzea, horiek dinamikan sartzea ahalbidetzeko eta erabakitako eginkizunetan behar bezala aurreratzeko.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+			
8.1.2. Mahai Teknikoaren eragite ahalmena sendotzea.	8.1.2.1. Lau urtean behingo ebaluazio integrala egitea jarduera eta koordinazioko Eskualdeko Protokoloari buruz, eta hori hobetzeko neurriak sartzea	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+			
	8.1.2.2. Protokoloaren Mahai Teknikotik egindako lanaren jarraipen etengabeko eta sistematizaziorako prozedurak ezartzea.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	++			
	8.1.2.3. Eskualdeko Protokoloaren esparru teorikoa eta horretan erabilitako terminologia berrikustea, datuak biltzeko eta kasuak jarraitzeko tresnekiko koherentzia bermatzearen.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+			
	8.1.2.4. Koherentzia eta koordinazioa artikulatzeko prozedurak ezartzea, indarkeria matxistaren prebentziorako eskualdeko programen eta eskualdeko Protokoloaren Mahai Teknikoan parte hartzen duten erakundeek biktimei arreta emateko garatutako jardueren artean.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+++			
	8.1.2.5. Mahai Teknikoan adostutako laneko jarraibideak erakunde sinatzaile bakoitzean horiek egoki aplikatzeko ardura duten buruzagitzak eta zinegotzigoetara eramatea ahalbidetzen duten solaskidetzarako bideak sendotzea, I. Protokoloaren garapenean hark duen aitzindaritzak bultzatzearekin batera.	Erakunde sinatzaileak	+++			



4. ARDATZA / 8. PROGRAMA - Detekzio eta arretarako: Eskualdeko Koordinazio Protokoloa

71

8.2.
HEL.
EST.

- Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen biktima diren emakumeei zuzendutako Arreta Hobetzeko Jarduerarako eta Erakundearteko Koordinaziorako Eskualdeko Protokoloaren Mahai Teknikoaren parte diren pertsona eta entitateen lan prozesu eta koordinazioa sendotzeko baldintzak hobetzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK	NEURRIAK	ARDURADUN NAGUSIA	KRONOGRAMA			
			2016	17	18	19
8.2.1. Prestakuntza-ekintza dinamikak sendotzea, indarkeria matxistaren arloan erakundeei zuzendutako ikaskuntza eraginkorra sustatzeko.	8.2.1.1. Protokoloaren Mahai Teknikoa osatzen duten pertsonen prestakuntza- eta gaikuntza-beharrak jasotzea, indarkeria matxistaren biktimak detektatzea eta horiei arreta ematea hobetzearen.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	8.2.1.2. Mahai Teknikoa osatzen duten pertsonentzako beharrezko prestakuntza espezifikoak eskaintzea, beste erakunde batzuetatik, bereziki Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Emakundetik, antolatzen diren gaikuntza-ekintzetan parte hartzea sustatzearekin batera.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	8.2.1.3. Erakunde sinatzaileek aholkularitza eskaintzea beren barne-langileei zuzendutako gaikuntza-ekintzak antolatzeko, Eskualdeko Protokoloaren koordinazioko Mahai Teknikotik adostutako ekintzen arabera.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
8.2.2. Eskualdean antzeman eta arreta emandako indarkeria matxistako kasuen gaineko sistematizazio eta ikuskatze lanean aurrera egitea.	8.2.2.1. Eskualdean erregistratutako indarkeria matxista kasuak sistematizatzeko eskualdeko datu-basea diseinatzeko eta egokitze lanarekin segitzea, eskualdez gairik mailan beste datu-base batzuk kudeatzen dituzketen beste erakunde batzuekin koordinatuta.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	8.2.2.2. Bermatzea erakunde sinatzaile guztiek detektatutako eta arreta emandako kasu guztiak eskualdeko datu-basean jasotzea.	Erakunde sinatzaileak	+	+	+	+
	8.2.2.3. Indarkeria matxista kasuak sistematizatzeko urteko txostenak egitea, eskualdeko datu-basean jasotako informazioan oinarrituta.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+
	8.2.2.4. Informazioa trukatzeko dinamikak ezartzeak konplexutasun berezikoak diren kasuak ikuskatzeko, bai maila indibidualean bai kolektiboan, erakunde sinatzaileen arteko beharrezko koordinazio dinamikak hobetzen segitzeko, biktimen konfidentzialtasuna uneoro bermatuta.	Mankomunitateko Berdintasun Arloa	+	+	+	+

4. ARDATZA / 8. PROGRAMA - Detekzio eta arretarako: Eskualdeko Koordinazio Protokoloa

8.1.
HEL.
EST.

- Genero Indarkeriaren eta Sexu Erasoen biktima diren emakumeei zuzendutako Arreta Hobetzeko Jarduerarako eta Erakundearteko Koordinaziorako Eskualdeko Protokoloa modu eraginkorren inplementatzeko beharrezko baldintza estrukturalak optimizatzea.



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 8.1.1.

Eskualdeko Protokoloko koordinazio egituren egonkortasuna hobetzea.

- ☐ Koordinazio Mahaian egonkortasun handiagoa eta bertan sartzen diren pertsonei informazio emate egokiagoa bermatzearren Protokoloan jasotako prozedura eta baldintza kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

HELBURU ESTRAT. 8.1.2.

Mahai Teknikoaren eragite ahalmena sendotzea.

- ☐ Protokoloaren Mahaiaren funtzionamenduan sartutako hobekuntza neurri kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Prebentzio programak eta indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko jarduerak hobeto koordinatzeko sartutako prozedura kopurua eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*



4. ARDATZA / 8. PROGRAMA - Detekzio eta arretarako: Eskualdeko Koordinazio Protokoloa

73

8.2.
HEL.
EST.

- Generolindarkeriaren eta Sexu Erasoen biktimak diren emakumeei zuzendutako Arreta Hobetzeko Jarduerarako eta Erakundearteko Koordinaziorako Eskualdeko Protokoloaren Mahai Teknikoaren parte diren pertsona eta entitateen lan prozesu eta koordinazioa sendotzeko baldintzak hobetzea.



PROZESU ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU ESTRAT. 8.2.1.

Prestakuntza-ekintza dinamikak sendotzea, indarkeria matxistaren arloan erakundeei zuzendutako ikaskuntza eraginkorra sustatzeko.

- ☐ Eskualdeko Berdintasun Arloak antolaturik Mahai Teknikoko pertsona eta erakundeei zuzendutako prestakuntza-ordu kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Mahai Teknikoko pertsona eta erakundeek parte hartu duten beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntza-orduen kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*
- ☐ Mahai Teknikoko erakundeek beren langileei zuzendutako barne-prestakuntzako jarduerak antolatzeko egindako kontsulta kopuru eta motak. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*

HELBURU ESTRAT. 8.2.2.

Eskualdean antzeman eta arreta emandako indarkeria matxistako kasuen gaineko sistematizazio eta ikuskatze lanean aurrera egitea.

- ☐ Eskualdean erregistratutako indarkeria matxista kasuak sistematizatzearren eskualdeko datu-basera urtero gehitutako erregistro kopurua. *(Iturria: indarkeria matxista kasuak sistematizatzeko urteko txostenak)*
- ☐ Eskualdeko indarkeria matxista kasuak sistematizatzeko urteko txosten kopurua. *(Iturria: Urteko Programa Operatiboen jarraipen fitxak)*



IV. zatia:

**Kudeaketa eredua
Emakumeen eta Gizonen
Berdintasunerako II.
Eskualde Planean**



**SIN LAS
MUJERES
NO HAY
ECONOMIA!**



II. PLANAREN GARAPEN ETA JARRAIPENERAKO SISTEMA

Lehenago jada azpimarratu moduan, Berdintasuneko II. Plan honen ezaugarri nagusietako bat prozesu nozioan jarritako indarra da, ulertzen baita ezen gauzak egiteko moduak determinatuko duela lortzen diren emaitzen kalitatea. Filosofia hori berori aplikatu nahi zaio, halaber, II. Planaren garapen eta jarraipen sistema orokorrari, ahalik eta modurik eraginkorren eta integratuenean jarri behar baita martxan, dagoeneko badiren Mankomunitatearen eta udalen egiturak baliatuta, ahaleginak bikoiztea eta beharrezkoak ez diren egiturak sortzea saihestuta eta ezinbestekoa denean berriak sortuta.

Ildo horretatik, ondoren azaltzen da Mankomunitatetik nola banatuko diren, erakundeen artean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken diseinu, garapen eta jarraipen erantzukizunak; eta Eskualdeko Berdintasun Arloaren eginkizunarekin hasiko gara, eta udaletatik edo Uggasatik II. Planeko neurri transbertsalak gauzatzeko bultzada eta partaidetzaren erantzukizuna izango duten arlo teknikoekin jarraituko dugu.

Eskualdeko Berdintasun Arloa

Osaketa: Arloko koordinatzaile bat eta berdintasuneko teknikari bat, genero eta berdintasun politiken arloko 180 ordutik gorako prestakuntza espezializatuaz eta gutxienez urtebeteko lan esperientziaz antzeko ezaugarriak dituzten lanpostuetan.

Funtzioak:

- ✓ II. Planaren ardura duen organoa da.
- ✓ Udal arloekin, Uggasarekin eta neurrien garapenean inplikaturako bestelako erakundeekin **urteko plan operatiboak** prestatzea kudeatzen du. Inplementazio kronogramak berrikustea eta beharrezko doiketak egitea barne, neurri bakoitzaren jarraipen fitxak egitea eta erabiltzea koordinatzearekin batera.
- ✓ II. Planaren esparruan Berdintasun Arloaren erantzukizuna diren urteko neurri programatuak zuzenean inplementatzen ditu.
- ✓ Udaletako eta eskualdeko arlo teknikoak zuzentzen ditu, horien politiketan genero ikuspegia txertatzeari dagokionez; horretarako irizpide komunak ezartzen ditu, urteko plan operatiboan eta horretarako sortutako lantalde teknikoan esparruan, eta modu puntualean banakako aholkularitza eskaintzen die toki eta eskualde mailako administrazioei, onartutako lau urteko plangintzaren esparruan lehentasunezko zatik jo ez diren arloetan.
- ✓ Berdintasuneko II. Planeko jarraipeneko organo tekniko eta tekniko-politikoak deitzen eta dinamizatzen ditu, ondoren jasotzen den organoen definizioari jarraikiz.
- ✓ Berdintasunerako II. Plana ebaluatzen du.

Udaletako arlo teknikoak eta Uggasa

Funtzioak:

- ✓ Parte hartzen dute Eskualdeko Berdintasun Planen diseinuan.
- ✓ Urteko plan operatiboan prestatuntzan laguntzen dute, beren erantzukizuneko neurriei lehentasuna emanez; neurri horien garapenari buruzko jarraipen fitxak beteko dituzte, kasu bakoitzean behar diren doiketak ere eginez.
- ✓ II. Planaren jarraipen eta ebaluaziorako behar diren datuak jasotzen dituzte.
- ✓ Urtean programaturako neurrien inplementazioa gidatzen dute, horien arduradun nagusiak baitira.
- ✓ Beren jarduera-eremuekin lotutako beste neurri batzuk gauzatzen laguntzen duten datuak edo kontaktuak ematen dituzte.
- ✓ Berdintasuneko II. Planeko jarraipeneko organo tekniko eta tekniko-politikoetan parte hartzen dute, ondoren jasotzen den organoen definizioari jarraikiz.



Mankomunitatearen Batzorde Eragilea

Osaketa: Lehendakaria, 3 lehendakariorde, eta udalek izendatutako 7 batzordekide; idazkaria eta kontu hartzailea.

Dinamizatzailea: Mankomunitatearen Idazkaritza

Eskualdeko Berdintasun Batzordea

Osaketa: Mankomunitatearen eta lau udalerrien ordezkari politikoak, berdintasunaren arloko udaletako arduradun teknikoak.

Dinamizatzailea: Mankomunitateko Berdintasun Arloa

Berdintasuneko Azpibatzerde Teknikoa (Berdintasuneko II. Planaren programazio eta jarraipena)

Osaketa: Lau udaletako 3 teknikari eta Uggasako teknikari bat; **horietako bakoitza da II. Planaren programazioaren eta jarraipenaren arduraduna bere erakundean.**

Dinamizatzailea: Mankomunitateko Berdintasun Arloa

Funtzioak:

- ✓ Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Plana Batzarrean onartzea proposatzen du.
- ✓ Berdintasunaren arloko urteko plangintza onartu, eta Batzarrari aditzera ematen dio.
- ✓ Berdintasunaren arloko urteko aurrekontu proposamena onartzen du, hala badagokio Mankomunitatearen Batzarrean onartzearen.
- ✓ Berdintasun politikaren garapenaren eta ebaluazioaren urteko jarraipena egiten du.

Funtzioak:

- ✓ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eskualde planak egiteko jarraibideak ezartzen ditu.
- ✓ Plana garatzeko urteko programa operatiboak eta aurrekontu programak prestatzeko jarraibideak ezartzen ditu.
- ✓ Mankomunitatearen Batzorde Eragilean azaldu edo erabaki behar diren proposamenak aurkezten ditu.
- ✓ Berdintasun politiken garapenaren segimendu jarraitua egiten du, eta urteko programa operatiboen inplementazioa onartzen du.
- ✓ Udalen eta Mankomunitateren arteko solaskidetza etengabeko organoa da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

Funtzioak:

- ✓ Parte hartzen du emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskualde planak prestatzeko prozesuan.
- ✓ Indarrean dagoen planaren garapenari buruzko informazio trukean laguntzen du, eta hura ebaluatzeko mekanismoetan parte hartzen.
- ✓ Urteko programa operatiboen jarraipen teknikoa prestatzen eta egiten du, udal eta eskualde mailan inplikaturako arloekiko lankidetzan.

LAN TEKNIKORAKO ESPAZIOAK

Kontratazio eta diru laguntza publikotako klausulei buruzko lantaldea

- Osaketa: Mankomunitateko Berdintasun Arloa Udaletako eta eskualdeko idazkariak.
- Dinamizatzailea: Mankomunitateko Berdintasun Arloa

Indarkeriaren arloko erakundearteko koordinaziorako I. Protokoloa garatzeko mahai teknikoak.

- Osaketa: Mankomunitateko Berdintasun Arloa, OGZ, Udaltzaingoa, Ertzaintza, Osakidetza (2 osasun zentro, osasun mentaleko zentroa eta eskualdeko ospitalea)
- Dinamizatzailea: Mankomunitateko Berdintasun Arloa

Uggasarekiko (Tokiko Garapen Agentzia) koordinazio teknikorako gunea

- Osaketa: Mankomunitateko Berdintasun Arloa, Uggasan sartutako enplegu, ekintzailatza, sustapen ekonomiko eta iraunkortasun programak.
- Dinamizatzailea: Mankomunitateko Berdintasun Arloa

Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko talde teknikoak

- Osaketa: Mankomunitateko Berdintasun Arloa, udaletako gazteria arloak eta OGZ.
- Dinamizatzailea: Mankomunitateko Berdintasun Arloa

Familia-esparruko zaintzaren arloko koordinazio espazioa

- Osaketa: Udaletako gizarte laguntzaileak
- Dinamizatzailea: Mankomunitateko Berdintasun Arloa

Funtzioak:

- ✓ II. Planeko Urteko Programa Operatiboen definizioan laguntzen dute.
- ✓ Aukera ematen dute kasuan kasuko arlo eta erakundeek II. Planeko neurrien artetik dagozkienak inplementatzearren behar duten laguntza indibiduala eta kolektiboa Berdintasun Arlotik egituratzeko.
- ✓ Urteko Programa Operatibo bakoitzean aurreikusitako neurrien garapenari buruzko informazio trukean laguntzen dute.
- ✓ II. Planaren jarraipen eta ebaluazio mekanismoetan parte hartzen dute.

EBALUAZIO TRESNAK

Jarraipeneko tresnetatik harago, ezinbestekoa da ekintza bakoitzaren eta helburuen betetze maila neurtzea. Horretarako, bi **ebaluazio adierazle** sorta diseinatuko dira, II. Planaren inplementazioa bi mailatan ebaluatu ahal izateko beharko baitira:

- a) Berdintasunerako **II. Eskualde Planaren ezarpen maila** ezagutzea, hau da, haren **betetze maila** ebaluatzea eta **sortutako lan prozesuei buruzko balorazioak** jasotzea. Horretarako, dokumentu honetan **betetzeari eta prozesuari buruzko adierazle** sorta bat jasotzen da (adierazle kuantitatiboak edota kualitatiboak), eta horrek aukera emango du 2017ko urtearen amaieran **jarraipeneko lehen ebaluazioa** egiteko.
- b) **II. Planaren emaitzak** ebaluatzea, hau da, ezagutzea **zer neurritan egin den Berdintasuneko II. Eskualde Planaren planteatutako helburuetarantz**, eta zer neurritan sortu diren eskualdeko errealitate sozialean eragitea ahalbidetu duten baldintzak. Horretarako, **emaitzei buruzko adierazle sorta bat diseinatuko da**, helburu espezifikoaren arabera antolatuz horiek; eta **II. Planaren azken ebaluazioaren** esparruan prozesatu eta analizatuko dira, 2019ko urtean.

Kontua da ezagutzea zer neurritan **bete den planifikatua**, ekintza, aurrekontu eta kronogramari dagokienez, eta aldi berean aztertzea ekintzen garapenak zer neurritan sendotu ahal izan dituen bai **genero transbertsalitatea** -barne mailan- bai herritarren partaidetza, emakumeena bereziki -kanpo mailan-.

Zehaztu behar, dena den, **hemen ez gara inpaktuaren ebaluazio bati buruz ari**, zeren eta neurketa mota honek lehen mailako iturriak erabiltzea eskatzen baitu (etxeke edo kaleko inkestak esaterako), eta horien inplementazio kostua handia da.

Bitarteko ekonomioen esleipena funtsezkoa da emakumeen eta gizonen berdintasunerako edozein plan inplementatzera begira. Ildo horretatik, Berdintasunerako II. Eskualde Plana gauzatzearen ardura duten toki eta eskualde mailako erakundeek konpromisoa hartzen dute **Udalek egiten duten gastu ekarpena, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak Mankomunitatetik kudeatzera bideratua, pixkanaka igotzeko**, gutxienez udalen aurrekontu osoaren % 0,25ra iritsi arte.

Esleipen horrek aukera emango du **berdintasuneko pertsonal teknikoaren ordu-dedikazioa igotzeko**, Mankomunitateko Berdintasun Arloan bi pertsona lanaldi osoz izatera iristeko.

Plan honen kudeaketak urtero zehaztuko diren bitarteko ekonomiko espezifikak izango ditu; eta bitarteko horien iturriak honakoak izango dira:


- a) 4 udalen ekarpenak.
- b) Mankomunitatearen ekarpena.
- c) Zenbait udal arloren edo beste udal edo eskualde mailako erakunde batzuen ekarpenak.
- d) Finantzaketako kanpo iturriak.

OHARRA: **Aurrekontuko partidak** urteko programa operatiboetan sartuko dira, eta diseinatzen diren **jarraipen fitxetan** jasoko dira, II. Planaren inplementazioan sartutako udal arloetako bakoitzean erabili eta gaurkotu ahal izan daitezen (fitxa eredu eranskinei buruzko IV. atalean ikusi). Lehenbiziko Urteko Programa Operatiboari dagokin aurrekontua d o a o n d o r e n .

Urteko Programa Operatibo (UPO) bakoitzerako prestatutako fitxetan, inbertsioari buruzko "semaforo" sistema bat jasoko da, horren bidez adieraztearren hurrenak:



BERDEZ: batez ere udaleko teknikarien eta politikarien **lanorduen bidez** gauzatuko diren neurriak.



HORIZ: teknikarien edota politikarien lanorduez gain zerbitzuak edo adituen aholkularitza kontratatzeko **funts propioak erabiltzea** beharko duten neurriak.



LARANJAZ: gauzatzeko unean **diru laguntza bat edo batzuk lortzea** ere beharko duten neurriak; horrelakoen inplementazioa ezin da, beraz, bermatu urteko programa operatiboak diseinatzeko unean.



III. KUDEAKETA EREDUA / 3. Bitarteko ekonomikoak

80

2016ko programen aurrekontua - 1. ARDATZA, GOBERNANTZA

ARDA TZAK	PROGRA MAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	NEURRIAK	2016ko programak
1. ARDATZA / EMAKUMEEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	1. PROGRAMA – Gen. Ikusp. transbertsalizatu nahi eta ahal izatea	1.1.1. HELB. EST. Berdintasun politiken ainguraketa politikoa finkatzea eskualde mailan.		
		1.1.2. HELB. EST. Pixkanaka igotzea mankomunitatean berdintasun politikak transbertsalizatzea sendotzeko dauden bitarteko ekonomikoak.		
		1.2.1. HELB. EST. Eskualdeko berdintasun politiken gaineko funtsezko erabaki eta koordinazio organoen osaketa eta eginkizunak birdefinitzea.		
		1.2.2. HELB. EST. Berdintasuneko politika publikoetan eragiteko toki eta eskualde mailako gaitasuna areagotzea eskualde mailako eta erakundearteko lantalde teknikoetako partaidetzaren bidez		
	2. PROGRAMA - Genero transbertsalitatea ezagutzea eta neurtzea	2.1.1. HELB. EST. Pertsonal tekniko eta politikoak politika publikoetan genero ikuspegia txertatzera bideratutako prestakuntza-bitartekoetarako duen aukera finkatzea.	Kargu publikoentzako prestakuntza ikastaroak	1.200 €
		2.1.2. HELB. EST. Genero ikuspegiaren transbertsalizazio maila areagotzea, prestakuntza-ekintza proiektuak abian jarritz horretarako.		
		2.2.1. HELB. EST. Udal eta eskualde mailako erakundeen gardentasuna eta kontuak ematea areagotzea, berdintasun politikak gauzatzeari dagokionez.	Berdintasun politika mankomunatuen komunikazio estrategia diseinatzea eta garatzea.	6.800 €
		2.2.2. HELB. EST. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Eskualde Planaren jarraipen eta ebaluaziorako sistema bat formalizatzea		
1. ARDATZA GOBERNANTZA GUZTIRA				8.000 €

2016ko programen aurrekontua - 2. ARDATZA, AHALDUNTZEA

ARDA TZAK	PROGRA MAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	KONTZEPTUAK	2016ko programak
2. ARDATZA / EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA	3. PROGRAMA - Emakumeen autonomia ekonomikorantz	3.1.1. HELB. EST. Uggasaren Laneko Orientaziorako zerbitzuen arreta sendotzea, enplegua eskatzen duten emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak kontuan hartuta.		
		3.1.2. HELB. EST. Genero joerak saihestea eta lan baldintza duinak sustatzea Bitartekaritza Zerbitzuaren esparruan		
		3.1.3. HELB. EST. Genero Ikuspegiaren sarrera indartzea Uggasaren HAZI programan.		
		3.2.1. HELB. EST. Emakumeek bere enpresa-proiektuak abian jartzeko unean topatzen dituzten hesiak kentzen laguntzea.		
		3.2.2. HELB. EST. Lehen sektorean lan egiten duten emakumeek bitartekoetarako duten aukera eta horien gaineko kontrola sendotzea.		
	4. PROGRAMA - Bizileku propioa: Emakumeen Etxea	4.1.1. HELB. EST. Eskualdeko Ahalduntze Eskolaren proiektu estrategikoa finkatzea.	Ahalduntze, prestakuntza, sistematizazio, zerbitzu eta difusio taldeak dinamizatzea.	46.900 €
		4.1.2. HELB. EST. Emakumeen Etxearen sorrerarantz aurre egitea, ahalduntzeko espaziotzat		
		4.2.1. HELB. EST. Ahalduntze Eskolak eskualderantz duen kanpo eragina sendotzea		
		4.2.2. HELB. EST. Emakumeen aitzindaritzaren eta partaidetza soziopolitikoaren maila handitzea eskualdean.	Martxoak 8 (elkarteen jardueretarako laguntza)	2.500 €
		2. ARDATZA AHALDUNTZEA GUZTIRA		



2016ko programen aurrekontua - 4. ARDATZA, INDARKERIA

ARDA TZAK	PROGRAM AK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	NEURRIAK	2016ko programak
1. ARDATZA / EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	7. PROGRAMA - Prebentziorako: BELDUR BARIK!	7.1.1. HELB. EST. Nerabe eta gazte biztanlerian indarkeria matxistak dituen arrazoi eta adierazpenen analisi feminista sustatzea.	Autodefentsa feminista, indarkeria sexistari buruzko hitzaldia Beldur Barik! topaketa Nerabeengan indarkeria prebenitzeko zerbitzu integrala	800 € 5.124 € 7.876 €
		7.2.1. HELB. EST. Hezitzaileei zein familiei gazteekin indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko tresnak ematea	Nerabeengan indarkeria prebenitzeko zerbitzu integrala Hezikidetzako prestakuntza 10 urtetik beherako seme-alabak dauzkaten familiekin	7.000 € 900 €
		7.2.2. HELB. EST. Gazte biztanleriaren artean berdintasuna sustatzera eta indarkeria matxista prebenitzera zuzendutako ekimenen eskualde mailako koordinazioa hobetzea.		
	8. PROGRAMA - Detekzio eta arretarako: Eskualdeko Koordinazio Protokoloa	8.1.1. HELB. EST. Eskualdeko Protokoloa koordinazio egituren egonkortasuna hobetzea.		
		8.1.2. HELB. EST. Mahai Teknikoaren eragite ahalmena sendotzea.	Eskualdeko I. Protokoloaren ebaluazioa	15.500 €
		8.2.1. HELB. EST. Prestakuntza-ekintza dinamikak ezartzea, indarkeria matxistaren arloan erakundeei zuzendutako ikaskuntza eraginkorra sustatzeko.	Kasuak ikuskatzeko laguntza, bai banaka bai talde mailakoa	10.000
		8.2.2. HELB. EST. Eskualdean antzeman eta arreta emandako indarkeria matxistako kasuen gaineko sistematizazio eta ikuskatze lanean aurrera egitea.	Emakume biktimei emandako arretari buruzko urteko txostena, aplikazioa mantentzea	6.700 €
	4. ARDATZA INDARKERIA GUZTIRA			53.900 €

2016ko programak finantzatzeko bideak - ARDATZAK GUZTIRA

FINANTZAKETA BIDEAK	2016ko programak
Urola Garaia Mankomunitatea	55.300 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	26.000 € (Eskatua)
Emakunde/Emakumearen Euskal Institutua	30.000 € (Eskatua)
BERDINTASUN PROGRAMAK GUZTIRA	111.300 €

Eskualdeko Berdintasuneko Langileak. 2016ko aurrekontua - ARDATZAK GUZTIRA

FINANTZAKETA BIDEAK	Langileak 2016
Urola Garaia Mankomunitatea	61.500 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	4.000 € (Hitzartua)
ESKUALDEKO BERDINTASUNeko LANGILEAK GUZTIRA	65.500 €

II. Plana inplementatzeko ESKUALDEKO BERDINTASUN ARLOAREN aurrekontu bilakaeraren aurreikuspena

2016-2020 epea: GASTUAK

GASTUAK: NEURRIEN GARAPENA	2016	Noiz arte	2020
1. ARDATZA / EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	8.000 €		11.100 €
2. ARDATZA / EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA	49.400 €		75.000
3. ARDATZA / ERANTZUKIZUNEZKO ANTOLAKETA SOZIALA			
4. ARDATZA / INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZA	53.900 €		36.000 €
GUZTIRA	111.300 €		122.100 €

GASTUAK: ESKUALDEKO BERDINTASUNERAKO LANGILEAK	2016	Noiz arte	2020
Berdintasuneko pertsonal teknikoaren ordu-dedikazioa igotzea, mankomunitateko Berdintasun Arloan bi pertsona lanaldi osoz izatera iristeko.	65.500 €		83.727 €

GASTUAK: NEURRIAK GARATZEA + BERDINTASUNEKO LANGILEAK	2016	Noiz arte	2020
GUZTIRA:	176.800 €		205.827 € (+29.027 €)

ESKUALDEKO BERDINTASUN ARLOAREN aurrekontu bilakaeraren aurreikuspena
2016-2020 epea: SARRERAK

NEURRIAK GARATZEKO SARREREN aurreikuspena 2020 (Gastu korronteko kapitulua eta pertsonalekoa barne)		2016	2020	ALDEA 2016/2020
UROLA GARAIA MANKOMUNITATEA	NEURRIAK	55.300 €	82.186 € (udal aurrekontuen % 0,25)	+26.886 €
	BERDINTASUNERAKO LANGILEAK	65.500 €	83.327 €	+17.827 €
	MANKOMUNITATEA GUZTIRA	116.800 € (% 66,1)	165.513 € (% 80,4)	+48.713 €
BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUK	BESTEAK GUZTIRA	60.000 € (% 33,9)	40.314 € (% 19,6)	-19.686 €
	SARRERAK GUZTIRA	176.800 € (% 100)	205.827 € (% 100)	+29.027 €

Gastu eta sarrera aurreikuspen honekin igo egiten da mankomunitateak berdintasun politikak bultzatu eta garatzeko egiten duen ekarpena; aldiz, murriztu egiten da beste administrazio publiko batzuen ekarpen aurreikuspena. Horrela jaitsi egiten da kanpoarekiko mendekotasuna, eta sendotu egiten da berdintasun arloko prozesu lokalen iraunkortasuna, % 33,9ko mendekotasunetik % 19,6kora igarota, hau da, 14 puntu jaitzita.

Nahiago izan da kanpo ekarpena murriztea, zuhurtziarekin lotutako bi arrazoiengatik: aurreikusitako neurri guztiek ezin dute kanpo finantzaketa izan (Emakundek diagnostikoak eta plan eta ebaluazioak egitea finantzatzen du, ez besterik), eta Emakumeen Etxearen proiektuak, berak bakarrik (eta GFaren babesaren zuzen gero), izango lukeen gastu bolumena dela-eta, beste neurriak agian ezingo lirarteke garatu edo horren paraleloan eraman, ziurtasunik gabeko kanpo ekarpenen bidez.

Mankomunitateko berdintasun politikak kudeatzeko gasturako udalen aurrekontu orokorraren % 0,25eko portzentajearen kalkulua erreferentziazko hasierako irizpidetzat hartzen da. Hau da, mankomunitaterako udal ekarpena biztanle kopuruaren arabera kalkulatzen den moduan, portzentajea azkenean zuzendu egingo litzateke, gorantz edo beherantz.

Bi teknikari lanaldi osoz edukitzeko neurria betetzea eta, horrenbestez, egun diren teknikarietako bati lanaldia lanaldi osora aldatzea, estu-estu lotzen zaio II. Planeko neurrien garapenari, bi zentzutan: kanpoko gastu ekonomikoa bridatu behar da batetik, eta egungo II. Planean aurreikusten diren neurriak orokorrean garatu behar dira bestetik, bai kostu ekonomikorik eragiteke arloaren erantzukizun zuzena izaki garatu beharreko neurriak bai arloaren erantzukizuna ez diren arren arloak lagundu eta aholkularitza eskaini behar duen neurriak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planei buruzko **4/2005 Legearen 15. artikulua** honakoa dio: "Foru aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute", eta "...planak eta programak onetsi aurretik, horiei buruzko txostena eman behar du Emakundek".



EJE y OBJETIVO ESTRATÉGICO:						
Objetivo específico	Nº					
Medida	Nº					
Descripción						
Áreas Responsables				Semáforo de inversión y estimación de coste		
Otras áreas y entidades implicadas				Periodicidad y cronograma		
Seguimiento	Nivel de cumplimiento	Indicadores de proceso				
	Total / Parcial No iniciado					
Informe de desarrollo de la medida						

1. ERANSKINA.

URTEKO PROGRAMA
OPERATIBOETARAKO
JARRAIPEN FITXAREN
EREDUA

